



“31 TRUKUTXO” HE-KO PLAN PARTZIALA (AZPEITIA)

2025eko otsaila

SUSTATZAILEA





"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



TALDE IDAZLARIA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa.
Iñigo Peñalba Arribas, arkitekto doktorea.
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua.
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa.
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa.

Kolaboratzaileak:

Carmen Segurola Lázaro, geografoa, Ingurumen eta Lurralde Azterketetako masterra
Ramón Román Alonso, bide ingeniaria (INEK)

"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



AURKIBIDE OROKORRA

- * **1. Dokumentua. MEMORIA.**
 - 1.1 dokumentua ANTOLAMENDUAREN INFORMAZIO- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA.
 - 1.2 Dokumentua INGURUMEN EBALUAZIOA (Liburu independentean)
 - 1.3 dokumentua GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
 - 1.4 dokumentua HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
- * **2. Dokumentua. HIRIGINZA-ARAUAK.**
- * **3. Dokumentua. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK.**
- * **4. Dokumentua. AZTERKETA EKONOMIKOA.**
 - 4.1 dokumentua. EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNEKO AZTERLANA.
 - 4.2 dokumentua. JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA.
- * **5. Dokumentua. EGIKARITZE-LABURPENA**
- * **6. Dokumentua. PLANOAK.**

"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



1. dokumentua
MEMORIA

SUSTATZAILEA





"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



1.1 dokumentua
HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN INFORMAZIO- ETA JUSTIFIKAZIO-
MEMORIA



AURKIBIDEA

Orrialdea


I.-	Plan Partzialaren aurrekariak eta xedea. Izapidetzea.	4
II.-	Plan Partzialaren eremua.	5
III.-	Plan Partziala egiteko esparru orokorra.	6
IV.-	Plan Partziala formulatzeko justifikazioa.....	9
V.-	Plan Partzialaren eduki formala	10
VI.-	Eremuaren egungo egoera. Egindako obra hidraulikoak eta bideetakoak eta horien eraginak. Egungo partzelarioa....	10
VII.-	Indarreko Hirigintza-araubide orokorra. 2013ko Azpeitiko Plan Orokorra	14
VIII.-	Esku hartzeko helburu eta irizpide orokorrak.	14
IX.-	Planteatutako antolamendu-alternatibak. Egokia hautatzea	14
X.-	Planteatutako hirigintza-antolamenduko proposamenak.....	17
XI.-	Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta azterketa akustikoa.	22
XII.-	Trukutxoren hirigintza-antolamendua eta haren ebaluazioa genero-ikuspegitik	23
XIII.-	Plan Partzialaren hizkuntza-ebaluazioa eta bere proposamenak.....	23
XIV.-	Irisgarritasuna.	23
XII.-	Eremuko lurren sailkapena	23
XVI.-	Hirigintza-antolamendua egikaritzeko baldintzak.	24
XVII.-	Plan Partzialaren eta bere proposamenen bideragarritasuna.	25
XVIII.-	Plan Partziala eta proposatutako antolamendua aplikatu beharreko lege-esparrura eta indarrean dagoen lurralde- eta hirigintza-plangintza orokorrera egokitzea.	26
XIX.-	Proposamenen laburpena.	35

ERANSKINAK

- 1.- "31 Trukutxo" (Azpeitiko Plan Orokorra) hirigintza-eremuko Hirigintza Arau Partikularra.
- 2.- Plan Partzial honetan proposatutako antolamenduaren ezaugarrien taulak.
- 3.- Irisgarritasuna sustatzeko indarreko araudia betetzearen justifikazioa.
- 4.- Nahikoa ur-baliabide eta saneamendu-zerbitzu daudela berresteko kontuan hartu beharreko parametroak.
- 5.- Ur Partzuergoaren txostena, ur-baliabideak eta saneamendu-sarea erabilgarri egoteari buruzkoa.
- 6.- Ingurumen Organoaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa.

I.- PLAN PARTZIALAREN AURREKARIAK ETA XEDEA. IZAPIDETZEA.

Azpeitian indarrean dagoen hirigintza-plangintza orokorrak, memoria honetako VII. atalean gehien aipatzen denak, "31 Trukutxo" hirigintza-eremua mugatzen du eta bertan indarrean dagoen egiturazko hirigintza-erregimena zehazten du. Eremua Azpeitian dago, Urola bailaran, udalerriko hirigune nagusiaren iparraldean, Lasao auzoan, Anardi eta Badiloegi artean, hurrengo irudian eta I.1 planoan ikus daitekeen bezala.



Indarrean dagoen Azpeitiko Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera, aipatutako eremuaren hirigintza-araubide xehatua zehazteak eta IV. atalean azaldutako gainerako helburuak lortzeak, VIII. atalean jaso den bezala, Plan Partziala egitea eta izapidetzea justifikatzen dute.

Testuinguru horretan eginda, Plan Partzial honen helburua da eremu horren hirigintza-araubide xehatua zehaztea, plangintza orokor hura garatzean.

Plan hori indarreko hirigintza-legerian (2/2006 Legeko 97. artikulua, etab.) aurreikusitako izapidetzearen xede izan behar du.

Horrela, hasierako onarpena eta behin-behinekoa eman zaizkio planari, eta bere ingurumen- eta hizkuntza-ebaluazioa ere egin eta jendaurrean jarri da. Orain testuategina idatzi da, Udalak behin betiko onar dezan.

Behar dituen txosten sektorialak eginak ditu, bereziki URAk 2024ko urriaren 7an eta Ur Partzuergoak 2024ko abuztuaren 5ean egindakoak, ur-baliabideei eta saneamendu-sareen nahikotasunari dagokienez, bai eta Ingurumen Organoaren ingurumen-adierazpen estrategikoa ere, 2025eko otsailaren 12an egindakoa (6. eranskina). Adierazpen horrek adierazten du behar bezala justifikatu dela Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 8ko Ebazpenaren bidez emandako irismen-dokumentuan aurkeztutako ingurumen-irizpideak integratzea, bertan zehazten baitira planean sartu beharreko neurri babesleak, zuzentzaileak, konpentsatzaileak eta jarraipenekoak.

Testu bategin honek erantzuna ematen dio horri guztiari, eta 2024ko urrian egindako txostenean jasotako zehaztapenak sartzen ditu, behin-behineko onarpenera eman aurretik.

II.- PLAN PARTZIALAREN EREMUA.

"31 Trukutxo" hirigintza-eremua da Plan Partzial honen eremua.

259.786 m²-ko azalera du eta bere mugapena indarrean dagoen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritakoa da.

Bere kokapena, kokalekua eta mugapena dokumentu honetako I.1 eta I.2 planoetan jasotakoak dira, eta irudi honetan ere ageri dira.



Aurreko irudian, eremua zeharkatzen duen Urola ibaiaren ibilgua ikus daiteke, baita lehenengoaren adarra den Ugalditza erreka ere.

Ipar-mendebaldean Anardi industrialdea dago eta hegoaldean Hondakin Uren Araztegia (HUA) eta Badiologiko industria-garapena.



III.- PLAN PARTZIALA EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

1.- Plan Partziala egiteko esparru orokorra eta lege-esparrua.

Plan hau bere eraginpeko arloetan aplikatu beharreko xedapenetan eta indarreko dokumentuetan ezarritako irizpideek eraturako testuinguruan egin da eta, bereziki, honako hauetan:

- * Indarreko lurralde-, hirigintza- eta/edo lurzoru-xedapenak:
 - Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
 - 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testuategia onartzen duena.
 - 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoru Legearen balorazioen Erregelamendua onartzen duena.
 - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, honako hauen ondoriozko aldaketekin: 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte-hartzea aldatzen duena (11/2008 Legea); 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoa; 2/2014 Legea, urriaren 2koa; Etxebizitzaren Legea, 2015eko ekainaren 18koa (3/2015 Legea).
 - 105/2008 Dekretua, Premiazko Neurriari buruzkoa, 123/2012 Dekretuak partzialki indargabetua.
 - 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.
 - Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea, ekainaren 18koa.
 - 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- * Beste arlo batzuetako indarreko xedapenak:
 - Errepide-arloko indarreko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen 1989ko maiatzaren 30eko legea, geroztik hainbat aldiz aldatu edota osatutakoa, eta 2006ko ekainaren 6ko Gipuzkoako Errepideen Foru Araua barne, besteak beste.
 - Natura-ondarea kontserbatzeko arloan indarrean dauden xedapenak: 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa; 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzekoa.
 - Irisgarritasuna sustatzeko legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta hura garatzeko sustatutako xedapenak.
 - Ingurumen-arloan eta hirigintza-plangintzaren ingurumen-ebaluazioan indarrean dauden xedapenak:
 - 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, abenduaren 5eko 9/2018 Legeak aldatutakoa, 23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, energia-arloan eta ekonomia berrindartzeko beste esparru batzuetan neurriak onartzen dituena, eta 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituena; 445/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, I., II. eta III. eranskinak aldatzen dituena.



- . 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- . 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozesua arautzen duena.
- Zarata-arloko indarreko xedapenak:
 - . Zarataren Legea, 2003ko azaroaren 17koa.
 - . 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa lehena eta soinu-zonakatzeari, kalitatezko helburuei eta soinu-igorpenei buruzkoa bigarrena.
 - . 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- Lurzoruaren kutsaduraren arloan indarrean dauden xedapenak: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa; 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea) eta 2007ko martxoaren 22ko Legea, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunerakoa (3/2007 Legea). Lege horietako aurrena 2/2012 Legearen eta 1/2022 Legearen bidez aldatu da.
- Uraren eta plan hidrologikoen arloan indarrean dauden xedapenak:
 - . 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uraren Legearen testu bategina onartzen duena.
 - . 1/2006 Legea, 2006ko ekainaren 23koa, Urarena.
 - . 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen dituena.
 - . 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoak eta beste batzuk berrikustea onartzen duena.
- Aireportuen segurtasun, aireko zortasun eta antolamenduaren arloan indarrean dauden xedapenak (13/1996 Legea, abenduaren 30ekoa, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzkoa; 48/60 Legea, uztailaren 21ekoa, Aireko Nabigazioari buruzkoa, Zortasun Aeronautikoak ezartzen dituena, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 29ko 55/99 Legeak aldatua); 21/2003 Legea, uztailaren 7koa, Aire Segurtasunari buruzkoa; 584/72 Dekretua, otsailaren 24koa, Zortasun Aeronautikoei buruzkoa; 2591/1998 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Interes Orokorreko Aireportuak eta haien Zerbitzu Eremua antolatzeari buruzkoa).
- 11/2022 Lege Orokorra, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa eta lege horrek baliozkotutako edo lege horren garapenean sustatutako xedapenak.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren bidez garatutakoa.
- Turismo-arloko indarreko xedapenak: 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoari buruzkoa; 101/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, erabilera turistikorako etxebizitza eta etxebizitzetako gelei buruzkoa.



- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoa.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-ostatuaren gutxieneko bizilagritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak.
- 8/2023 Legea, ekainaren 29koa, EAEko kultuko eta erlijio-aniztasuneko leku edo zentroak.
- Etxebizitzaren arloan indarrean dauden beste xedapen batzuk, babes publikoko etxebizitzak arautzen dituztenak barne (2022ko ekainaren 30eko Agindua, babes publikoko etxebizitzaren gehiengoaren prezioak eta errentak eta zuzkidura-ostatuaren kanona zehazteari buruzkoa).
- Eraikuntza-arloko indarreko xedapenak, Eraikuntzako Kode Teknikoa barne.

2.- Indarrean dauden lurralde-antolamenduko planak.

Eremu horretan eragina duten lurralde-antolamenduko planak honako hauek dira, besteak beste:

- * Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (Betiko O: 2019.eko uztailak 30).
- * Urola Kosta eremu funtzionaleko Lurralde Zatik Plan (Betiko O: 32/2006 Dekretua, otsailaren 21ekoa) eta, bereziki, Truktxo eremuari buruzko haren Aldaketa, 14/2009 Dekretu bidez, urtarrilaren 27an behin betiko onartua.
- * Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra) (Betiko O: 1998-XII-22; gero 2013-XI-19ko Dekretu bidez aldatua).
- * EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana (otsailaren 27ko 41/2001 D.).
- * Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak sortzeko 2004ko Lurraldearen arloko Plana (abenduaren 21eko 262/2004 D.).
- * Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Plana (Betiko O: 2013-VI-10)
- * Nekazaritza eta Bazozaintzako Lurraldearen Arloko Plana (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua).
- * Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa).

3.- Indarreko egiturazko hirigintza-araubidea.

Araubide hori VII. atalean azaldutakoa da.



IV.- "31 TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA FORMULATZEKO JUSTIFIKAZIOA.

Indarrean dagoen Azpeitiko HAPOn ezarritakoaren arabera, "31 Trukutxo" eremuaren antolamendu xehatuaren araubidea zehazteko, dagokion Plan Partziala formulatu behar da. Horixe da, hain zuzen ere, dokumentu honen helburua eta, horregatik, hori formulatzeko justifikazioa.

Plan Partzialaren irizpideak eta helburuak HAPOn aurreikuspenen ondoriozkoak dira. Honako hauek dira:

- LAGetan eta ekonomia-jardueren LAPeen xedatutakoaren arabera, Azpeitiko hirigunean dagoen Amue eremua bizitegi-lurzoru bihurtzea konpentsatzen duen eremuaren hirigintza-garapenaren antolamendua, horretarako udalerrian ekonomia-jardueretarako lurzorua aurreikusiz, lurralde-antolamenduak jada formulatzen dituen eta Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean (urtarrilaren 27ko 14/2009 Dekretua) jasota dauden aurreikuspenekin bat etorritik.

Horretarako, lurralde-antolamendurako dokumentu horretan Lasao ingurua aukeratu zen, Anardi eta Badiolegi arteko Urola ibarreko hiri-continuum osatuz.

- Eremua mugatzea Ugalditzako ibarbidean inpaktua minimizatzeko, egindako ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren azterlanean jasota dagoen bezala, eta Anardiko eremu finkatuan, bide- eta trenbide-trazatueta eta lehen aipaturiko Lurralde Plan Partzialak araztegiaren iparraldean finkatutako nekazaritza-intereseko lurzoruetan mugapen zehatzak aurkituz.
- Xede nagusitzat ezaugarri eta helburu oso zehatzeko ekonomia-jarduerak ezartzea duen eremua antolatzea, eremua zehaztasunez mugatzea eta dagokion hirigintza-erregimenaren definizio espezifikoa behar dutenak.
- Komunikazio-bideen eta Urola ibaiaren trazatuak (bideak, bizikletentzakoak, oinezkoentzakoak eta trenbidea) antolatzea eremuan igarotzen diren tartean. Proiektatutako Azkoitia eta Zumaia arteko trenbide-sarera salgaiak sartu ahal izateko eremuan sarbide zuzena antolatzea ahalbidetzen du proposamenak.
- Eraginpeko ibai-ibilguak eta horien ertzak tratatzeko irizpideak indarrean dauden EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeke Lurralde Arloko Planean (isurialde kantauriarra) eta Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Plan Partzialean xedatutakora egokitzea, bai eta Urola ibaiaren inguruneke Jabari Publiko Hidraulikoaren berrikuspenetik ondorioztatzen denera ere.

Helburu horiek lortzeak eta gauzatzeak justifikatzen du aipatutako Plan Partziala formulatzea.

Aurreko helburuei industria-erabilerak ezartzeko lurzorua prestatzeko helburu horrekin egikaritutako urbanizazio- eta eraikuntza-obra eta obra hidraulikoak finkatzea gehitu behar zaie. Hain zuzen ere, honako hauei buruz ari gara: bide-sarea eraldatzea (GI-631 errepidea), eremura



eta Anardira sartzeko biribildune berri bat eginez, ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko modua berrantolatuz; bi plataformak egikaritzea eta bien arteko desnibela gaitutuko duen eta haietan bermatuko den industria-eraikin bat egitea; trenbide-estalkia berregokitzea; eta Urolaren ezkerreko ertzean horma bat eta ibaiaren gainean zubi bat antolatzea, bi ertzak lotuko dituen, ezkerreko ertzaren beheko plataformatik eskuineko ertzean egikaritutako plataformaraino, eskuin ertzeko harri-lubetaren gainean. Harri-lubeta horren oinean dira eskuinaldeko ibilgailuentzako bidea, bidegorria eta oinezkoentzako bidea.

V.- PLAN PARTZIALAREN EDUKI FORMALA.

Indarrean dagoen 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 68. eta 69. Artikuluetan eta aplikatu beharreko legeria osagarrian xedatutakoarekin bat, Plan honetako proposamenak dokumentu hauetan daude jasota:

- * "1. Memoria" dokumentua.
 - "1.1 Hirigintza-antolamenduaren informazio- eta justifikazio-memoria" dokumentua.
 - "1.2 Ingurumen-ebaluazioa" dokumentua.
 - "1.3. Genero-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentua.
 - "1.4 Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentua.
- * "2. Hirigintza Arauak" dokumentua.
- * "3. Egikaritzea antolatze eta kudeatzeko jarraibideak" dokumentua.
- * "4. Azterketa Ekonomikoa" dokumentua.
 - "4.1 Ekonomia-bideragarritasuneko azterlana" dokumentua.
 - "4.2 Jasagarritasun ekonomikoaren memoria" dokumentua.
- * "5. Egikaritze-laburpena" dokumentua.
- * "6. Informazio eta antolamendu xehatuko planoak" dokumentua.

"Dokumentu horien eta beraien proposamenen izaera informatzailea, interpretatzailea eta/edo arauemailea lehen aipaturiko "2. Hirigintza Arauak" dokumentuan arlo horretan xedatutako aurreikuspenen ondoriozkoa da.

VI.- "31 TRUKUTXO" EREMUAREN EGUNGO EGOERA. EGIKARITUTAKO OBRA HIDRAULIKOAK ETA BIDEETAKOAK ETA HORIEN ERAGINAK. EGUNGO PARTZELARIOA.

1.- Egungo egoeraren deskribapen orokorra.

2013ko Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorre mugatutako "31.Trukutxo" eremua Lasao ingurunean dago, udalerraren iparraldean, Anardi eta Badiologiko industria-jarduerek okupatutako lurzuaren hiri-jarraituan, eta Urola ibaiaren bi ertzetan garatuta.

Ibaiak bi zatitan banatzen du. Ipar-ekialdean dagoenak, gutxi gorabehera, behealdeko +70 kotatik goialdeko +165 kotara doan hegala osatzen du.

Hegoaldean dagoena lauagoa da zati handi batean, baina hamazazpi metro inguruko desnibela du ibaiaren ibarrean (+70) eta GI-631 errepidearen kotan (+87) egikaritutako bi plataformen artean.

Hegoaldeko zati horretan daude, beste egitura batzuen artean, eskualdearekin komunikatzeko bide-sare nagusia (GI-631), trenbide-eremu txiki bat (Urolako trenbidearen trazadura zaharra, xede horrekin finkatu dena), aparkalekuak eta 210 x 54 m-ko garaiera handiko pabiloi bat, eta muga egiten du han dagoen industrialdera sartzeko bidearekin.

Hori guztia aurreko IV. atalean aipatutako obrak egikaritzearen ondorio da.

Hurrengo irudian (ortoargazki berria), Trukutxoko eremuaren egungo egoera erakusten da, Lasaoko hiri-eremuaren continuumean.



Aurreikusitako obra hidrauliko guztiak egikarituta daude, eta haien eraginak ezagunak dira. Horren ondorioz, une honetan ez dago eremuaren hirigintza-antolamenduari eragiten dion galdera edo zalantza berezirik haiei lotuta. Are gehiago, Urola ibaiari dagokion Jabari Publiko Hidraulikoa berrikustea ekarri du horrek, lehen ere aipatu dena. Testuinguru horretan, ezkerrean horma bat dago, eta ibaiaren gainean bi ertzak lotzen dituen zubi bat egikaritu da, ezkerreko ertzaren beheko plataformatik eskuineko ertzean harri-lubaki gainean egikaritutako plataformaraino. Harri-lubetaren oinean igarotzen dira eskuinaldeko ibilgailu, bizikleta eta oinezkoentzako bideak. Gainera, finkatu egingo da lehendik zegoen oinezkoentzako pasabidea.




Eskuinaldeko bideaz gain, bide-sareko elementu egikaritu berriak ere finkatu dira (GI-631 errepedea, eremura eta Anardira sartzeko biribilgune berria barne), eta aire zabaleko ibilgailuen aparkalekuaren berrantolaketa eta trenbide-sarea.

2.- Egungo partzelarioa eta jabetza-baldintzak.

Partzelarioa Gipuzkoako Katastroaren informaziotik abiatuta egindako ondorengo grafikoan (eremua horiz) eta I.3 planoan azaldutakoa da, sustatu beharreko birpartzelazio-proiektuan gehiago zehaztearen kalterik gabe.

Titulartasunari dagokionez, eremuko lur gehienak Hierros Servando, S.L. enpresarenak dira.

Gainerakoak titulartasun publikokoak dira, eta bat datoz eremuan dauden ibai-ibilguren tarteekin (jabari publiko hidraulikoa), GI-631 foru-errepedearekin eta tokiko bideekin (bide-jabari publikoa), eta trenbidearekin (trenbidearen jabari publikoa).



I.3 planoan, honela nabarmenduta daude: urdinez, jabari publiko hidraulikoa; gris ilunez, katastroak GI-631 foru-errepedeari esleitutako lurzorruak; gris argiz, Urolaren eskuinaldeko bidea eta Anardira sartzeko bide zaharrari dagokion lurzorua, gaur egun desagertuta dagoena, eta beste lursail txiki bat; eta morez, tunelean jarraitutasuna duen trenbidearen titulartasuneko lurzorua eta Urola gaineko zubia, hegoadean.

Eremuko gainerako lurzorruak (zuriz) Hierros Servando, S.L. Enpresaren jabetzakoa dira. Hurrengo taulan modu osagarrian irudikatuta dago egoera hori.



PARTZELA	AZALERA -m ² (z)-	JABEA.
1. partzela	20080	Jabari Publiko Hidrauliko (DPH)
2. partzela	14688	Gipuzkoako F.A. (egungo GI-631 errepidea)
3. partzela	1688	ETS (trenbide-trazaduraren erreserba)
4. partzela	5131	Azpeitiko udala (beste bide batzuk)
5. partzela	537	Azpeitiko udala (beste bide batzuk)
6. partzela	169	Azpeitiko udala (beste bide batzuk)
Gainerako partzelak	217493	Hierros Servando, S.L.
GUZTIRA		--

Zehaztu egin behar da lurzoruen titulartasunaren irudi hori ez datorrela bat egikaritutako obraren errealitatearekin; beraz, Plan Partzial honen (eta jarraian izapidetu beharreko birpartzelazio-proiektuaren) helburuetako bat izango da egikaritutakoa eta proposatzen dena beteko duten titulartasun-baldintza berriak zehaztea. Hala, antolamenduaren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundia GI-631 errepide-sistema orokor gisa kalifikatutako lurzoru osoaren jabe izango da, eta Anardira sartzeko bide zaharraren lurak eta egikaritutako industria-partzelaren itxituraren iparraldean dauden GI-631 errepideari esleitutakoak partzela horretan sartuko dira; aldi berean, eremutik kanpo, Anardirako bide-sarbide alternatibo berriak berrezarri dira.

Plan Partzialak sortzen diren zuzkidura publiko berriak ere identifikatuko ditu. Horrela, jabari publikora pasatuko da Urola ibaiaren ezkeraldea, jabari publiko hidraulikoaren eta egikaritutako hormaren artean dagoena eta, hegoaldean, Urolako bizikleta-bideari jarraipena ematen dion bidea, Badiologiren eta HUaren ondoan eskuinaldera gurutzatzen duen pasabidearen artean dagoena.

Espazio libreen azalera handi bat ere hartuko du Urolaren eskuinaldean, lehendik zegoen bidearen ekialdean.



VII.- INDARREKO HIRIGINTZA-ARAUIDEA. 2013KO AZPEITIKO PLAN OROKORRA.

Araubide hori indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorrean ezarritakoa da eta, besteak beste, honako aurreikuspen hauei erantzuten die:

- * Lurren hirigintza-sailkapena: lurzoru urbanizagarri sektorizatua.
- * Kalifikazio orokorraren ondorioetarako, lursail gehienak "B.10. Industrial" tipologiako zonan sartzen dira eta gainerakoak "E.10 Errepideak eta herri barruko bide nagusiak", "E.20 Ibilbide Berezien Sarea. Bizikletak-Oinezkoak", "E.30 Trenbide Sarea" eta "H.10 Ibai Ibilguak" tipologiakoetan.
- * "B.10" eremuaren hirigintza-eraikigarritasuna
 - Sestra gainean:0,25 m²(z)/ m²
 - Sestra azpian:
Eremu orokor osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokorreko "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan izaera orokorrearekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.
- * Hirigintza-araubide xehatua eremuan sustatu beharreko Plan Berezian zehazten dena izango da.

VIII.- ESKU HARTZEKO HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK.

Adierazitakoa kontuan hartuta, "31 Trukutxo" eremuaren antolamendu xehatua zehazteak justifikatzen du Plan Partzial bat egitea, ekimena justifikatzeko IV. atalean adierazitako helburu eta irizpide orokorrei erantzungo diena. Horiei lotzen gataizkie hemen.

IX.- PLANTEATUTAKO ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK. EGOKIA HAUTATZEA.

IV. atalean azaldutako helburuak lortzeko justifikatzen du aurreko VIII. atalean jaso den bezala, besteak beste, honako antolamendu-aukera hauek zehaztea eta baloratzea:

1.- 1. alternatiba: aurreko egoerara itzultzea.

Azken urteetan bertan sustatu eta gauzatutako jarduketak egikaritu aurretik zegoen eremuaren jatorrizko egoera lehengoratzea esan nahi du, baina ez duela mende askoko egoera, lurraldea haltzadiz, hariztiz eta baso mistoz estalita zegoen garaikoa.

1985eko egoerarekin bat datorren hurrengo grafikoko irudiak alternatiba hori islatzen du.



2.- 2. alternatiba: egungo egoerari eustea.

Eremua egungo ezaugarriekin mantentzea dakar, haietan inolako aldaketarik egin gabe. Esku-hartzerik ez egiteak esan nahi du Trukutxoko lurraldea ez dela aldatuko giza esku-hartze berri baten ondorioz eta, beraz, ez dela ingurumen-ondorio negatibo zuzenik eragingo, baina ezta garapen berriari lotutako ondorio onuragarri edo positiborik ere.

Egungo egoeraren ortoargazkiari dagokion hurrengo grafikoan agertzen den aukera da (2022. urteko irudia).





3.- 3. alternatiba: 2013ko Azpeitiko HAPOn garapenean proposatutako antolamendua.

Besteak beste, indarrean dagoen Azpeitiko Plan Orokorren ezarritako aurreikuspenei erantzuten die, Plan horrek Lasaoko continuumean eremua garatzea planteatzen du industria-jarduerak hartzeko, Anardi eta Badiolegi artean.

Gainera, aukera ematen du helburu horri erantzuteko behar den plangintza xehatua egiteko, bai eta azken urteotan egikaritu den guztiari erantzuteko ere, lurzoruen titulartasuna erregularizatu ahal izateko: ibilguak, foru-bideen trazadura, trenbide-trazadura, zuzkidura publikoak, industria-izaerako partzelak, etab.

Proposamena Plan Partzial honen antolamendu-planoetan irudiztatu da.

4.- Alternatiba egokia hautatzea.

IV. Atalean azaldutako esku-hartzearen helburu eta irizpide orokorren esparruan aukera egokia hautatzeak, aurreko VIII. Atalean jaso den bezala, honako kontsiderazio hauek justifikatzen ditu.

Alde batetik, "1" alternatibak ez ditu indarreko Plan Orokorren aurreikuspenak garatzen eta, gainera, nekez onar daitezkeen kostu gehigarri batzuk ere baditu, bereziki ekonomikoak, kudeaketakoak, etab., laurogeiko hamarkadaren erdialdean nagusi ziren elementu artifizialak kentzeko eta nekazaritza-erabilerak berreskuratzeko. Beraz, ez da ez alternatiba bideragarri bat eta ez Plan Partzialaren formulazioa justifikatzen duen helburu nagusiari erantzuten dion alternatiba bat, hau da, Plan Orokor horren proposamenak garatzea eta egikaritzea. Eremu Funtzionaleko LPPea eta Azpeitiko HAPOn xedatutakoari ere ez dio erantzuten.

Halaber "2" alternatibak ez du hirigintza-garapen berririk aurreikusten eta, horregatik, ez luke eraginik izango lurralde horretan, lurraldearen bilakaeraren beraren eta gaur egun hartzen dituen erabileren ondoriozko harago, nekazaritza-erabilerak (mendi-hegalean), okupaziorik gabeko industria-erabilerak, aparkalekuak eta bideak (meandroaren ezker aldean) eta bideak (meandroaren eskuinaldean). Alternatiba horrek ez ditu gauzatuko Udalak eremu horretan egindako aurreikuspenak, 2013ko HAPOn zehaztutakoak eta, lehen aipatutako arrazoiak kontuan hartuta, ez da aurrera eramateko moduko alternatiba.

"3" alternatiba da Plan Orokorren aurreikuspenak garatzen dituen bakarra eta, gainera, LAGen eta LPPren zehaztapenei erantzuten die industria-lurzorua sortzeari dagokionez eta, alde horretatik, eremurako udal-irizpide eta -itxaropenei. Aldi berean, Amueko eremua bizitegi-erabilerara birmoldatzen laguntzen du, dagokion lurzorua jarduera ekonomikoetarako konpentsatzea aurreikusiz, eta lekuaren erabilera eta birkualifikazioa bultzatzen du, zuzkidura publiko berriak antolatuz eta eremuan jabari-baldintzak erregularizatuz.

Arazoi horiek guztiak batera kontuan hartuta, esan daiteke, planteatutako helburuei erantzuteko aurreikusitako guztien artean, 3. aukera dela egokiena. Hala jaso da aldi berean egindako IAEen ere.



X.- PLANTEATUTAKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUKO PROPOSAMENAK.

Aurreko VII. epigrafean azaldutako helburu eta irizpideak kontuan hartuta, VIII. epigrafean jaso den bezala, eta IX. Atalean zehaztu eta aztertutako antolamendu-alternatibak kontuan hartuta, antolamendu-proposamen hauek planteatu dira:

1.- Antolamenduaren deskribapen orokorra.

Eremuaren antolamendua Plan Orokorreko hirigintza-arauetan planteatutako irizpide eta helburuen arabera definitzen da, honako emaitza honekin:

- Kalifikatutako eremu publiko orokorrez gain (bideak, trenbideak, ibai-ibilguak), tokiko espazio libreen hiru azpierreu zehaztu dira, Urolaren ezker aldearekin ("f.10.2"), lehendik dagoen bidearen ondo-ondoan eta Ugalditza errearen eskuinaldera hedatzen den Urolaren eskuinaldeko hegalararekin ("f.10.1"), eta Ugalditza errearen ezker aldearekin ("f.10.3") bat datozenak, eta laugarren bat Urolaren eskuinaldeko bideen eta ingurunean berariaz mugatutako jabari hidraulikoaren arteko espazioarekin ("f.20.1" gisa kalifikatuta dago eta ez da kontuan hartzen zuzkidura-zenbaketa onorioetarako) bat datorrena.
- Tokiko bide publiko gisa xehetasunez kalifikatutako bi azpierreuen salbuespenarekin ("e.10.2.2" y "e.10.2.3"), eremuaren gainerakoari, ibaiaren bi aldeetan, industria-erabilera emango zaio eta, gaur egun dagoen eraikina edukitzeaz gain, egokitze jotzen diren kokalekuei beharrezkotzat jotzen diren gainerako eraikinak hartuko ditu, Plan Orokorra baimendutako eraikigarritasuna agortu arte. Bi partzela bereizten dira, honela identifikatu direnak: "b.10.1" y "b.10.2".

2.- Zonakatze orokorra eta xehatua.

Zonakatze orokorreko aurreikuspenak 2013ko Plan Orokorrean ezarritakoak dira. Aurreikuspen horiek guztiak finkatu egingo dira, trenbidearen eta Ugalditzako erreastoaren egungo errealitate fisikora egokitzeko garrantzi gutxi doikuntza batzuekin, HAPOn horretarako xedatutakoaren arabera. Grafikoki irudiztatuta dira I.5 planoan.

Zonakatze xehatua X.1 atalean azaldutakoaren arabera da. II.1 planoan zehaztuko da grafikoki, eta jarraian deskribatuko da:

- Plan Partzialak 158.436 m²-ko "b.10.1" partzela industrial bat antolatu du. Partzela hori Urola ibaiaren bi ertzetan garatzen da, eta jarraitutasuna du bi ertzak lotzen dituen eta Ugalditzako erreastoaren gainean aurreikusten den zubiaren bidez. Eta 28.138 m²-ko "b.10.2" bigarren partzela industrial bat ere antolatu du, Anardiren ondoan. Horrek aukera ematen du garatu beharreko industria-jarduerari erantzuna emateko. Aukera ematen du GI-631 errepidetik partzeletarako sarbidea izateko, Anardi eremuan barrena, Urolako oinezkoentzako eta bizikletentzako bidetik eta proiektatutako trenbide-saretik. Horrela, bi partzelek irisgarritasun-baldintza ezin hobeak dituzte Lasaoko hiri-continuumean.
- Plan Orokorrean definitutako bide-sistema, trenbide-sistema eta ibai-ibilguen sistema orokorren eremuak mantendu egingo dira, lehen adierazitako doikuntza txikiekin, eta "e.10.1", "e.10.2.1", "e.20.1", "e.30.1", "f.20.1", "h.10.1" (Urola ibaia) eta "h.10.2" (Ugalditza erreasto) azpierreu gisa kalifikatuko dira, hurrenez hurren.



- Ibilguen gainean (zubiak eta oinezkoentzako pasabidea), trenbidearen tunelean eta leku horretan aurrez zegoen lurpeko kanalaren ur-hargunean ematen diren erabilera eta kalifikazio jakin batzuk gainjartzen direnez, bi mailatako kalifikazioa bereizten da: goiko mailan (zubi-plataforma industrial) eta beheko mailan (ibaia-tunela-kanaleko sarbidea), aipatutako II.1 planoan ikus daitekeen bezala. Horregatik, identifikatutako eremuen azalaren batura ez dator bat eremuaren azalera osoarekin, eta azalera hori baino handiagoa da.
- X.1 atalean adierazi den bezala, Hiri Espazio Libreen hiru azpierreku mugatzen dira ("f.10") ibaiaren bi ertzetan, Anardin dagoen industriagunetik ibai-ertzeko pasealeku gisa erabiltzea errazten duten posizioetan edo Badiolegiko eremutik datorren oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea hartzen duelako. Espazio libre horiek irisgarriak dira bide publikoetatik, eta jarraitutasuna dute Urola ibaian gora eta behera. 34.260 m² dituzte.
- Eremuaren antolamendua "e.10.2.2" eta "e.10.2.3" bide publikoko partzelek osatzen dute, eta guztira 1.687 m² dituzte.

Zonakatze xehatuko aurreikuspen horiek hurrengo taulan islatuko dira modu osagarrian.

KALIFIKAZIO XEHATUA	Azalera m ²	Azalera m ²
"B.10. Zona industrial"		186.874
"b.10.1 Zona industrial"	158.436	
"b.10.2 Zona industrial"	28.138	
"e.10 Errepideak eta Hiri barruko Bideak"		16.567
"e.10.1" (S.O.)	13.129	
"e.10.2.1"	2.051	
"e.10.2.2"	1.155	
"e.10.2.3"	532	
"e.20.1 Ibilbide Berezien Sarea. Oinezkoak-bizikletak". (S.O.)		1.460
"e.30.1 Trenbide-sarea". (S.O.)		1.540
"f.10 Hiriko Espazio Libreak"		34.260
"f.10.1"	20.225	
"f.10.2"	11.585	
"f.10.3"	2.450	
"f.20.1 Espazio libre komunak" (S.O.)		478
"h.10 Ibai Ibilguak"		20.820
"h.10.1" (S.O.)	20.080	
"h.10.2" (S.O.)	740	
TRUKUTXO EREMUA GUZTIRA		259.786

(1). Bi kota desberdinetan dagoenez, eremu batzuk gainjarri egiten dira eta, zenbakiei dagokienez, azpierrekuaren batura eremuaren azalera osoa baino handiagoa da.

3.- Eraikigarritasunaren eta erabileren programa.

Programa hori bat dator indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorrean aurreikusitakoarekin, IV. eta VII. ataletan azaldutakoarekin.

Guztira, industria-erabilerako 56.691,75 m²(s) antolatu dira, 0,25 m²(s)/m²-ko eraikigarritasuna industria-erabilerako zona globalaren 226.767 m²-ko azalerari aplikatzeari dagozkionak.



Eraikigarritasun horren % 85, hau da, $48.188 \text{ m}^2(\text{s})$, 158.736 m^2 -ko azalera duen "b.10.1" partzela industrialari esleitu zaio, eta gainerako % 15, hau da, $8.503,75 \text{ m}^2(\text{s})$, 28.138 m^2 dituen "b.10.2" partzela industrialari.

Bi partzela industrialetan eraikinaren gehieneko atzerapenak ezarri dira, partzela horien perimetroari dagokionez. Atzerapen horiek ibai-ibilgurekiko (Urola ibaiaren 26 m eta Ugalditza errearen 12 m), trenbidearen trazadurarekiko, GI-631 errepidearekiko eta lurzoru urbanizaezinarekiko (basoak) kontuan izan beharreko gutxieneko distantziari dagozkio. Grafikoki irudiztatu dira II.2 planoan.

Bestalde, Urolaren ezker aldean dagoen eraikinaren gehieneko altuera, jada egikaritutako eraikinari dagokion gehienekora mugatzen da eta, Urolaren eskuinaldean, finkatuta dagoen plataformaren sestrarekiko 13,00 metrora.

Plangintza-fase honetan, ez dakigu zein den eskuinaldeko jarduketaren irismena eta, ondorioz, hortik sor daitekeen lur-mugimenduaren bolumena.

4.- Antolatutako zuzkidurak.

Antolatutako zuzkidura publikoak dokumentu honetako II.1 planoan jasotakoak dira.

Horietatik guztietatik lehen arreta merezi dute Plan Partzial honetan lehen aldiz kalifikatzen diren tokiko hiri-espazio libreak antolatzeke proposamenek ("f.10" azpierrekuak), guztira 34.260 m^2 -ko azalera baitute).

Azalera horrek bete egiten du Hirigintza Estandarrei buruzko Dekretuak (D.123/2012) 9.3 artikuluan ezarritako eskakizuna, sistema orokorrak kenduta, sektorearen azalera osoaren % 12 baino handiagoa baita. ($0,12 \times 226.767 = 27.212,04 \text{ m}^2$), modu zehatzagoan aurrerago justifikatuko den bezala.

Era berean, Plan Partzialaren antolamendu berriaren xede diren beste 1.687 m^2 , "e.10.2.2" eta "e.10.2.3" azpierrekuak dagozkienak, tokiko bide publikotara bideratuko dira.

Horrez gain, beste 478 m^2 espazio libre komunitaria bideratuko dira ("f.20"), beste 15.180 m^2 bide-erabilerrako (orokorra eta tokikoa), 1.460 m^2 ibilbide berezien sarerako (bidegorria), eta 1.540 m^2 trenbide-sistema orokorrerako.

Esan behar da gaur egun pribatuak diren lurzoruen azalaren batura (ikus I.3 planoan), 2.806 m^2 -ko azalera ($1.687 + 1.119 \text{ m}^2$) duen sistema orokorra eta tokiko bide-sistema osatzen duena, gaur egun Katastroak bide publikotzat jotzen dituen lurzoruen batura baino handiagoa dela eta gaur egun egikaritutako bide-berrantolaketa onorioz, (1.925 m^2) publiko izateari utzi diotelako pribatu bihurtuko direla.

Bestalde, 123/2012 Dekretuko 3.2 artikuluari dagokionez, kalifikatutako partzela pribatiboen azalera (186.874 m^2) industria-azalera osoaren % 30 baino handiagoa da argi eta garbi, aipatutako dekretuak eskatzen duen bezala ($\% 30 / 226.767 = 68.030,10 \text{ m}^2$).

Azkenik, ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarriko sektore berriak garatzeko nahitaez bete beharreko ratio generikoei buruz Jarduera Ekonomikoetarako LAPEko 11. artikuluan ezarritako aurreikuspenei dagokionez, aurreikusitako zonakatzeari aipatutako ratioei dagokiela adierazten da.



Hala, eraikuntzaren oinplanoko gehieneko okupazioak (115.226 m²) ez du gainditzen sektorearen azaleraren % 65 (industria-erabilerako zona globalak 226.767 m²-ko azalera duenez, 147.398 m²); eraikigarritasuna ez da % 95etik gorakoa (HAPOk % 25ean ezarri du); 34.260 m² espazio libretara bideratu dira, sektorearen azalera gordinaren % 15 baino gehiago (industria-erabilerako zona globalak, 226.767 m²-ko azalera duenez, 34.015 m²); eta aparkaleku publikoko plazak zuzkidura ere 567 plazatan ezarritako gutxienezko bako handiagoa da, aurrerago justifikatuko den bezala.

Osagarri gisa, eraikuntza-proiektuak zehaztean, partzelen barruan horiei dagozkien plazak gaituko dira bere garaian aplikatu beharreko araudiaren arabera, Hirigintza Estandarren Dekretu berri bat izapidetzen ari dela ikusita.

Garatu beharreko eraikinak, bestalde, titulartasun pribatuko bulegoei, ostalaritzari, zerbitzu komunei eta abarri dagokien enpresarentzako zerbitzu-zuzkidura izango du, aurreikusitako estandarren arabera.

5.- Komunikazio-sarea eta aparkalekuak.

5.1.- Komunikazio-sarea.

Esan bezala, lehendik zeuden bide-, trenbide-, bizikleta- eta oinezko-sareak finkatu egin dira, eta Plan Partzialak egikaritutako errealitatea jaso du, Katastroan jasotzen den abiapuntuko jabetza-erregimenaren desberdina (I.3 plano).

Bereziki, GI-631 errepideko biribilgunea eta trenbidearen trazadura finkatu dira, azken horretatik "b.10.1" partzelarako balizko sarbidea barne.

Bide-sare hori osatzeko, tokiko bideetarako ("e.10.2.2" eta "e.10.2.3") azpiero gehigarriak antolatu dira, bide-saretik industria-partzelara eramaten duten aturrekin bat datozenak.

Plan Partzial hau garatzeko sustatu beharreko Urbanizazio Proiektuak bi azpiero horiei dagokienez beharrezkotzat jotzen diren urbanizazio-neurri osagarriak zehaztu beharko ditu, behin eta berriz esaten den arren egikarituta daudela.

5.2.- Aparkalekuak.

Horri buruz adierazi da 123/2012 Dekretuak ez duela aparkaleku-estandarrik aurreikusten esku artean dugun kasurako.

Dena den, orain arte egindako jarduketaren ondorioz, 148 aparkaleku antolatu ziren eremuaren kanpoaldean, bere aldamenean.

Osagarri gisa, antolamendu berriko "b.10.1" industria-partzelan autoak aparkatzeko plazak gaitu dira (25) eta kamioientzako aparkalekua ere aurreikusten da. Aurreikusitako eraikigarritasuna egikaritzeko, bi partzeletan behar diren aparkaleku-plaza osagarriak gaituko dira, bere garaian aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik.



6.- Proposamen hidraulikoa.

Azaldutakoaren arabera, lekuan aurreikusitako obra hidraulikoak dagoeneko egikaritu direla adierazten da, URA-Uraren Euskal Agentziaren baimenekin bat etorritik.

Era berean, proposatutako eraikinak okupatzeko baldintzek eremuan identifikatutako JPH errespetatzen dute, bai eta legerian eta aplikazioko planetan ezarritako atzerapenak ere.

Plan Partzial honetan aurreikusitako antolamendua finkatu egin diren obra hidrauliko horiek egikaritzearen ondoriozko errealitatera egokitzen da. Horrek guztiak, prozeduran zehar URAk 2024ko urtarrilaren 23an egindako txostenean xedatutakoari erantzuten dio.

Txosten horri erantzunez, modu osagarrian adierazten da proposamena egikaritzean onartu egin beharko dela drainatze jasagarriko hiri-sistemak sartzeari buruz indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudiko 48. artikuluan ezarritakoa eta, Urbanizazio Proiektuak, ibilguen zaintza-eremuan dagoenez, Uraren Euskal Agentziaren (URA) nahitaezko administrazio-baimena beharko duela.

Ur-horniduraren arloko baliabide-premien zenbatespena jardura baimentzeko unean bertan egingo da. Garapenak sarera konektatuz gero, bere garaian Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren adostasun-txostena lortu beharko da eta, aurreikuspena Urola ibaiko ura erabiltzea bada, URAk eman beharreko ur-aprobetxamenduaren emakida izapidetu beharko da.

Halaber, testuinguru horretan, saneamendua kudeatzen duen erakundeak txostena egin beharko du, egungo instalazioak isurketa berriak arazteko gai izango direla eta lehendik dagoen sarea nahikoa dela justifikatzeko, ezingo direlako hondakin-urak jabari publiko hidraulikora isuri. Badiologiko HUATik gertu egoteak erraztu egiten du hori guztia.

4. eranskinean nahikoa ur-baliabide eta saneamendu-zerbitzu daudela berresteko kontuan hartu beharreko parametroak jaso dira. Erabilgarritasun hori berretsi egin da Gipuzkoako Ur Kontsortzioak 2024ko abuztuaren 5ean egindako txostenean (5. eranskina).

Eremu horretan lehendik dagoen zentro txiki baterako hartune bat dagoela gaineratu behar zaio horri, eta 2024ko urtarrilaren 10eko baimena duela Urola ibaiaren 4.000 l/s-ko aprobetxamendurako.

6.- Urbanizazioa eta zerbitzu-azpiegiturak.

II.2 planoan grafikoki deskribatu dira urbanizazio-baldintzak eta bideen sestrak, eta I.4 eta II.3 planoetan, bestalde, lehendik dauden zerbitzu-azpiegituren eskemak deskribatu dira, denak konektatutakoak.

A.- Lurraren egokitzapena, fabrikako obrak eta azaleko urbanizazioa.

- * *Lurraren egokitzapena*
Ez da egokitzapenik behar, urbanizazio-obra eginda baitago.



f.10.1 eta f.10.3 gisa identifikatutako espazio libreen urbanizazioari dagokion salbuespena jakinaraztea baino ez da behar (f.10.2 eremuak urbanizazioa egikaritutatu, Badiogilegiti HUAren pasabidera doan ibilbidearekin bat datorrena). Kasu horretan, esku-hartzea Urolaren eskuinaldeko "b.10.1" partzelaren aldeko eraikuntzako esku-hartzearekin batera zehaztu eta egingo da.

Aldez aurretik izapidetu beharreko urbanizazio-proiektuak bertan zuhaitzak jartzea aurreikusiko du, baina sestra aldatu egin ahal izango da eraikuntzako esku-hartzearen ondorioz, behar diren urbanizazio-obra osagarriak kontuan hartuta.

* *Azaleko urbanizazioa*

Espazio publiko osoa urbanizatuta dago, ahal izanez gero, iragazkortasuna emango zaion f.10.1 eta f.10.3 gisa identifikatutako espazio libreak izan ezik. Testuinguru horretan, drainatze jasagarriko hiri-sistemak txertatzeko ahalegina egingo da.

Batez ere zuhaitzak jarriko dira.

B.- Proiektatutako zerbitzu-azpiegiturak.

II.3 planoan zerbitzu-azpiegituri dagozkien eskemak eta horien ezaugarri orokorrak islatu dira. Finkatu egin da lehendik dagoen egoera.

Nolanahi ere, horien ezaugarriak eta nahitaezko baldintzatzaileak pixkanaka zehaztuko dira Urbanizatzeko Jarduketako Programan eta Urbanizazio eta Eraikuntza Proiektuetan, urbanizazio-obra osagarriekin batera. Nolanahi ere, Udalak zehaztutako irizpideetara egokituko dira.

Bereziki, b.20.2 partzela hornituko da zerbitzuekin.

XI.- PLAN PARTZIALAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA, AKUSTIKOA ETA ENERGETIKOA.

Ebaluazio horiek "1.2 Ingurumen ebaluazioa" dokumentuan jasotakoak dira.

Ingurumen-ebaluazioari dagokionez, Ingurumen Organoaren 2024ko urtarrilaren 8ko Ebazpenaren bidez egin da ebaluazio horren irismen-dokumentua eta, horrela, Plan Partzialaren eta haren IAEren idazketan, irismeneko dokumentu horretan jasotzen denari erantzun zaio.

Halaber, dagokion azterlan akustikoa sartu da.

Bestalde, EAEko jasagarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean (7. art.) adierazitakoaren arabera, jasagarritasun energetikoaren azterketa behar duten hirigintza-planak honako hauek dira: egiturazko antolamenduko planak, hiri-antolamenduko plan orokorrak, plangintza orokorra bateragarri egiteko planak, sektORIZAZIO-planak eta, hala badagokio eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, antolamendu xehatuko planak.



Plan Partzial hori plan xehatua da, eta ez egiturazkoa; horregatik, aipatutako Legea ez denez erregelamendu bidez garatu, ez da beharrezkoa aipatutako jasagarritasun energetikoari buruzko azterlanarekin osatzea.

Azkenik, azaldu behar da Trukutxon "b.10.1" partzelan ezarri nahi den industria-jarduera bat datorrela birziklatze-planta batekin, ekonomia zirkularra bultzatzen eta garapen jasagarria lortzen lagundu beharko duena. Bestalde, "b'10.2" partzelaren titulartasuna Udalari dagokio.

Adierazi den bezala, Ingurumen Organoak 2025eko otsailaren 12an egin zuen ingurumen-adierazpen estrategikoa (6. eranskina). Txosten horretan jaso da behar bezala justifikatu dela irismeneko dokumentuan aurkeztu ziren ingurumen-irizpideak integratzea, eta planean jaso beharreko neurri babesleak, zuzentzaileak, konpentsatzaileak eta jarraipenekoak zehaztu dira.

XII.- TRUKUTXOKOKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HAREN EBALUAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK.

Ebaluazio hori "1.3 Genero-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentuan jasotakoa da. Udaleko zerbitzu teknikoek 2024ko apirilaren 24an egindako aldeko txostena du.

XIII.- PLAN PARTZIALAREN HIZKUNTZA-EBALUAZIOA ETA BERE PROPOSAMENAK.

Ebaluazio hori "1.4 Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentuan jasotakoa da. Udaleko zerbitzu teknikoek 2024ko apirilaren 24an egindako txostena du.

XIV.- IRISGARritasuna.

Memoria honen 3. eranskinean berariaz justifikatzen da irisgarritasun unibertsalaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzen dela. Hemen azpimarratu behar da kokagunearen ibar-izaerak erraztu egiten duela multzo antolatuan irisgarritasun-baldintza egokiak lortzea.

XV.- EREMUKO LURREN SAILKAPENA.

Indarreko Plan Orokorrek hiri-lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen ditu Plan Partzial honen eraginpeko eremuko lursail guztiak.

Plan Partzial honen xedea eremuaren antolamendu xehatua zehaztea da.



XVI.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA EGIKARITZEKO BALDINTZAK.

Baldintza horiek Plan Berezi honetako "3. Egikaritzea antolatze eta kudeatzeko jarraibideak" dokumentuan jasotakoak dira.

Baldintza horiek, besteak beste, ondoren azalduko diren jarraibideei erantzuten die.

1.- Jarduketa integratuko eremua mugatzea eta egikaritze-baldintzak zehaztea.

1.1.- Plan Partzial honek eremurako proposatzen den jarduketaren ondoriozko jarduketa integratuko eremua identifikatzen du. AAI 1/31 gisa identifikatzen den eremu hori sektore osoari dagokio, sistema orokorrak barne, eta dagokion Hirigintzako Jarduketa Programaren (aurrerantzean, HJP) xede izango da.

Hala ere, dagoeneko egikarituta dauden eta titulartasun publikoa duten sistema orokorreko dagozkien lurzoruak eta bere garaian bide-sareari zegozkionak eta izateari utzi diotenak, ez dira kontuan hartuko hirigintza-erakigarritasunaren banaketaren ondorioetarako. I.3 eta I.5 planoen irakurketak erakusten du zer egoeratan dagoen kontu horri dagokionez, eta aipatutako HJPan garatuko da.

1.2.- Hirigintzako Jarduketa Programak, halaber, honako hauek zehaztu beharko ditu, besteak beste: dagokion egikaritze-unitatea mugatzea; bere jarduketa-sistema zehaztea; eta eremuko urbanizazioaren proiektio- eta egikaritze-baldintzak, urbanizazio-aurreproiektu bati dagokion zehaztapenarekin zehaztea.

1.3.- Hirigintza-erakigarritasunaren banaketa, alde batetik, eraginpeko lurren jabeen eta, bestetik, Udalaren artean proiektatutakoa, indarrean dagoen hirigintza-legerian horri buruz ezarritako irizpideetara egokituko da.

Bereziki, jarduketa integratuaren eremuan, Udalari esleituko zaio erakigarritasunaren % 15, indarrean dagoen lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera. Horretarako, partzela independente bat identifikatu da eremuan ("b.10.2" partzela). Kontuan hartuko dira indarrean dagoen Azpeitiko HAPOn ezarritako haztapen-koefizienteak, Plan Partzial honen azterketa ekonomikoan azaltzen den bezala, eta horri lotzen gatazka,

1.4.- Eraikin berriak egikaritze indarreko legerian, Plan Partzial honetan eta horien garapenean sustatu beharreko dokumentuetan (Hirigintzako Jarduketa Programa, etab.) ezarritako irizpideetara egokituko da.

1.5.- AAI.1/31 jarduketa integratuaren eremuan planteatutako proposamenak egikaritzeko, HJPan eta bertan sustatu beharreko Birpartzelazio Proiektuan ezarritakoa bete behar da.

Nolanahi ere, une honetan eta dokumentu horietan ezarritakoaren kalterik gabe, adierazi behar da komenigarria dela, besteak beste, gai hauek kontuan hartzea:



- Lehendik dagoen trenbide-sarea finkatu eta bere osotasunean identifikatu da, sestra gainean edo azpian (tunela) duen kokapena kontuan izan gabe.
- Proposatutako antolamendu xehatuak foru bide-sarea berriz mugatzea aurreikusten du, egindako obraren arabera (GI-631 errepidean egindako biribilgune berria eta errepide horren trazaduraren mugatzea egikaritutako obraren arabera).
- Proposatutako antolamendu xehatuak udal bide-sarea berriz mugatzea aurreikusten du, egikaritutako obraren arabera (Anardirako sarbide berria, Urolaren eskuinaldeko bidea, etab.).
- Ibilguei dagokien antolamendu xehatua eta, bereziki, Urola ibaiaren ibilguari dagokiona, leku horretarako ezarritako JPHra mugatzen da.
- Proposatutako antolamendu xehatuak udal bide-sarea berriz mugatzea aurreikusten du, egikaritutako obraren arabera (Anardirako sarbide berria, Urolaren eskuinaldeko bidea, etab.).
- Proposatutako antolamendu xehatuak bi partzela industrial identifikatzen ditu, horiek zatitzeko aukera ematen badu ere, indarrean dagoen Azpeitiko Plan Orokorra xede horretarako ezarritakoaren arabera.
- Antolamenduz kanpoko egoeran kalifikatu da eremuaren ipar-mendebaldean eta Urolaren eskuinaldean kokatutako eraikin txikia.

Halaber, dagokion Urbanizazio Proiektua izapidetu beharko da. Testuinguru horretan, eduki beharreko zuhaitzak (567 unitate kontserbatzea eta/edo landatzea), Urola ibaiaren eta Ugalditzako erreka-ostean ertzak babesteko neurriak eta behar diren zerbitzuen hartuneak hartuko dira kontuan.

Indarreko HAPOK trenbide-, bide- eta ibilgu-sistema orokor gisa kalifikatutako lurzoru publikoak, lehendik daudela eta titulartasun publikoa dutela kontuan hartuta eta indarreko hirigintza-legerian (2/2006 Legeko 25. artikulua, 35.5. artikulua eta abar) ezarritakoaren arabera, ezin dira konputagarritzat hartu aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasuna eremuaren jabetzaren artean banatzeko xedeetarako. Pribatu bihurtzen diren partzela publikoak ere ez dira kontuan hartuko, bide-erabilerarako pribatu izatetik publiko izatera pasatzen direnekin konpentsatuko baitira, lehen adierazi den bezala.

Azkenik, eremuko gainerako lursailak ondoriozko eskubideak eta urbanizazio-kargak banatzeko konputagarritzat hartzeko baldintzak betetzen dituztenak dira. Hori guztia, Plan Partzial honen garapenean eremuan sustatu beharreko Birpartzelazio Proiektuan kontu horri buruz zehazten denaren kalterik gabe.

XVII.- PLAN PARTZIALAREN ETA BERE PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA.

"4. Azterketa ekonomikoa" dokumentuan Plan Partzial honetan planteatutako antolamendu-proposamenen bideragarritasuna justifikatzen da. Nolanahi ere, dokumentu berean adierazten den bezala, bideragarritasun hori Jarduketa Integratuko Eremuan sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programan garatu eta osatu beharko da.



XVIII.-PLAN PARTZIALA ETA PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUA INDARREAN DAUDEN LEGEZKO ESPARRURA ETA LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-PLANGINTZA OROKORRERA EGOKITZEA.

1.- Indarreko-legeriara egokitzea.

1.1.- Sarrera.

Plan Partzialean aurreikusitako antolamendua bat dator aplikatu beharreko legeriarekin, honako gai hauetan indarrean dagoena barne: irisgarritasun unibertsala (justifikazioa 3. eranskinean); ingurumen-ebaluazioa eta zarata (Planari ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin zaio, eta ondorioztatu da bere proposamenek ez dutela eragin nabarmenik ingurumenean); generoaren eta hizkuntza-egoeraren gainean izan ditzakeen inpaktuen ebaluazioa ("1.3" eta "1.4" dokumentuak); eta abar.

Halaber, hurrengo ataletan, Plan Partziala eta haren proposamenak gai hauetan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako aurreikuspenetara egokitzen direla justifikatzen da: hirigintza (1.2 atala), urak (1.3 atala), eta abiazio zibila eta zortasun aeronautikoak (1.4).

1.2.- Indarreko hirigintza-legeriara egokitzea.

Plan Partzialaren helburuari erreparatuta, arreta berezia jarri behar zaio une honetan tokiko sistemen sareko hirigintza-estandarrak arautzen dituzten aurreikuspenetara egokitzeari. Aurreikuspen horiek lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean eta 123/2012 Dekretuan ezarrita daude.

Egokitzapen horrek, besteak beste, jarraian adierazten denari erantzuten dio:

- a) Plan Partzial honetan aurreikusitako hirigintza-garapenaren baldintzatzaileak kontuan hartuta, lurzoru urbanizagarriko hirigintza-garapenarako ezarritako tokiko sistemen sareko hirigintza-estandarrak aplikatu behar dira, eta erabilera nagusia industrial da.
- b) Sektorean sartutako lursailen guztizko azalera 259.786 m²-koa bada ere, hirigintza-estandar horiek zehazteko eta betetzeko, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan:
 - * 14.877 m² ibai-ibilguen sistema orokorrera bideratu ditu indarrean dagoen HAPOk (H.10). Hirigintza-legerian ezarritako aurreikuspenen arabera, ez bidezkoa azalera hori zenbatzea aipatutako estandarrak betetzeko xedeetarako.
 - * 12.824 m² bide-sistema orokorrera bideratu ditu indarrean dagoen HAPOk (E.10). Hirigintza-legerian ezarritako aurreikuspenen arabera, ez bidezkoa azalera hori zenbatzea aipatutako estandarrak betetzeko xedeetarako.
 - * 4.478 m² oinezkoen eta bizikleta-bideen sistema orokorrera bideratu ditu indarrean dagoen HAPOk (E.20). Hirigintza-legerian ezarritako aurreikuspenen arabera, ez bidezkoa azalera hori zenbatzea aipatutako estandarrak betetzeko xedeetarako.



- * 840 m² trenbide-sistema orokorrera bideratu ditu indarrean dagoen HAPOk (E.30). Hirigintza-legerian ezarritako aurreikuspenen arabera, ez bidezkoa azalera hori zenbatzea aipatutako estandarrak betetzeko xedeetarako.
 - * Ondorio horietarako zenbatu daitekeen eremuaren azalera osoa, sistema orokorrak kenduta, 226.767 m²-koa da (259.786 – 14.877 – 12.824 – 4.478 – 840).
- c) 123/2012 Dekretuko "9.3" artikuluan ezarritakoaren arabera, aplikatu beharreko hirigintza-estandarrak kalkulatzeko, sektorearen azalera hartu behar da erreferentziatzat, sistema orokorrak kenduta. Horren ondorioz, honako hauek ateratzen dira:
- Tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoak:
 - * 226.767ren % 12 = 27.213 m²
 - (gutxienez % 50 berdegunetara bideratu behar da: 13.607 m²).
 - Zuhaitz bat landatzea edo kontserbatzea eraikitako 100 m²-ko:
 - * 226.767 x 0,25/100 = 567 unitate
- d) Baldintzak kontuan hartuta, eremu horretan antolatu beharreko zuzkidura publiko guztiak berdegunetara bideratzea proposatzen da.

Horregatik, azalera horrek 27.213 m² izan behar ditu, gutxienez.

Hala ere, azalera horri 7.000 m² gehitu behar zaizkio, Azpeitiko HAPOk Truktxoko eremurako berariaz xedatutakoaren arabera.

Ondorioa hau da: Plan Partzial honek antolatutako tokiko espazio libreen azalera (f.10) 34.260 m²-koa da, eta zenbateko horrek arestian aipatutako kopuruen batura gainditzen du: 34.218 m², [27.213 m² + 7.000 m²]; beraz, dagokion egoerarako ezarritako zuzkidura publikoen estandarra betetzen da. III.4 epigrafean adierazitakotik sortutako 34.015 m²-ko gutxienerako azalera ere gainditzen da.

- e) Eremuan 567 zuhaitz landatzea edo kontserbatzea aurreikusten da. Urolaren eskuinaldeko haltzadia eta beste espezie batzuk kontserbatuko dira, eta espazio libreetarako (berdeguneak) Urolaren eskuinaldeko partzela berria landareztatu egingo da.

Urbanizazio-proiektuak justifikatuko du behar bezala betetzen dela.

1.3.- Ur-arloko indarreko legeriara egokitzea.

2.4 eta 2.9 epigrafeetan azaldutakoari lotzen gatzazkio.

1.4.- Abiazio zibilaren eta zortasun aeronautikoen arloko indarreko legeriara egokitzea.

Eremuari ez dio eragiten zortasun aeronautikoko eremu bakar batek ere.



Beraz, ez da ikusten arrazoi horren ondoriozko eraginik.

2.- Indarreko lurralde-antolamendura egokitzea.

2,1.- Sarrera.

Kasu honetan kontuan hartu beharreko lurralde-antolamenduko tresnak memoria honetako III.2 atalean adierazitakoak dira, eta IAEko 1.1.3 atalean ere aipatzen dira. Horiei lotzen gataizkie hemen.

Hurrengo ataletan, Plan Partziala eta haren proposamenak lurralde-plan horien aurreikuspenetara egokitzen direla justifikatzen da.

2.2.- 2019ko Lurralde Antolamenduko Gidalerroetara egokitzea.

Eremuaren hirigintza-garapena bat dator indarrean dagoen plangintza orokorrean aurreikusitakoarekin (2013ko Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra). Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB) horren aldeko txostena eman zuen, besteak beste, garai hartan indarrean zeuden LAGetara egokitzeari dagokionez (1997).

Garapen hori bat dator une honetan indarrean dauden lurralde-ereduekin eta LAGen proposamenekin (2019), helburua Urolaren Eraldaketa Ardatza garatzea eta Urola ibaiaren ibilgua korridore ekologiko eta paisaia-korridore gisa lehengoratzea den heinean, eremu degradatuak eta ingurumen-egoera kaskarra duten ibaiertzak lehengoratuz, betiere uholde-arriskuak kontuan hartuta, kasu honetan bezala

Bereziki, LAGek ez dute zehaztaperen zehatzik ezartzen aztergai den eremuari dagokionez, eta Plan Partzialaren aurreikuspenek gidalerro batzuk azpimarratzen dituzte, eta ez dute eraginik gidalerro horiek proposatzen duten lurralde-ereduaren gainean.

2.3.- Urola Kosta eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialera egokitzea.

Plan Partziala eta haren proposamenak bateragarriak dira Trukutxoko industria-eremua antolatzeko berariaz izapidetutako aldaketan eremurako jasotzen den LPParen lurralde-ereduekin urtarilaren 27ko 14/2009 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoan.

Hain zuzen ere, aldaketa hori onartu ondoren hasi zen eremuko esku-hartzea, baina gerora gelditu egin zen.

Plan Partziala izapidetzeak prozedurari jarraipena emateko eta Trukutxo eremuaren garapenari plangintza xehatua emateko da eta, horregatik, LPPan xedatutakora egokitzen da.

2.4.- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera (Kantauri isurialdea) egokitzea.

A.- "31 Trukutxo" eremua Urola ibaiaren bi aldeetan kokatua dago eta, horregatik, aipatutako LAPak (1998ko abenduaren 22ko Dekretuaren bidez behin betiko onartua eta 2013ko azaroaren 19ko Dekretuaren bidez aldatua) eta haren proposamenek eragiten diote.

Honako hauek dira eremuan dituen afekzioak:

* Afekzio hidraulikoak:

- Urola ibaia, Trukutxotik igarotzen den tartean, IV. kategoriakoa da, $200 < C \leq 400$ Km-ko ibaiadarra².
- Ugalditza erreka, haren eskuinetik doan ibaiadarra, 0 kategoriakoa da, 1 Km^2 baino gehiagoko ibaiadarra ($1 < C \leq 10 \text{ Km}^2$).
- Anarditik HUAra sarbidea duen zati txiki bat bakarrik dago 500 urtetik gorako aldietarako uholde-arriskuko eremuan.

* Hirigintzako-afekzioak:


- Eremua lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago.
- Horregatik, Urola ibaiaren ertzek hirigintza-garapen berriak egiteko ahalmena duten eremuen berezko baldintzei erantzuten diete.
- Eraikinek, gutxienez, 26 m-ko atzerapena izan behar dute Urola ibaiarekiko eta 12 m-koa Ugalditza errekaarekiko eta, urbanizazioak, berriz, 11 m-koa eta 5 m-koa, hurrenez hurren.

Atzerapen horiek lotesleak izango dira eraikin berrietarako eta adierazgarriak lehendik dauden eraikinen kontserbazio-, birmoldatze- edo ordezkapen-operazioetarako.

* Ingurumen-afekzioak:

- Eraginpeko eremuko Urola ibaiaren ertzen zati jakin batzuek ondo kontserbatutako landaredia duten ibaiertzen eta leheneratu beharreko ibaiertzen berezko baldintzak betetzen dituzte.

LAPari dagokionez, honako bereizketa hau egin behar da.





B.- Plan Partzialak eta haren proposamenek aurreikuspen horiei erantzuten diete, jarraian azalduko den bezala:

- * Uholde-arriskuei dagokienez, ikusten da bi ertzetan antolatutako industria-partzelaren sestra uholde-arriskurako erreferentziazko kota baino askoz gorago dagoela.

Hala, prozeduran zehar URAk egindako lehen txostenak, 2024ko urtarrilaren 23koak, berariaz adierazten du eremuaren uholde-arriskua txikia dela. Meandroaren eremuaren eskuinaldean, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uraldiak eremua inguratzen duen eta Badiologiko HUA Anardiko industrialdearekin lotzen duen bidea hartzen dute.

Erlazionatu beharreko sestrekin eta bideak ibaiarekin duen hurbiltasunak zaildu egiten dute lekuan esku hartzea eta hautemandako arriskuak minimizatzea.

Nolanahi ere, Plan Partziala URAk (Uraren Euskal Agentziak) zehazten duenera egokitu behar da, izapidetzearen eta egikaritzearen testuinguruan.

- * II.2 planoan ikus daitekeenez, Plan Partzialak eraikin berriaren gutxieneko atzerapen-baldintzak ezartzen ditu, eta baldintza horiek lehen aipatutako gutxieneko atzerapenak errespetatzen dituzte, hain zuzen ere 26 metrokoa Urola ibaiarekiko eta 12 metrokoa Ugalditza errekaarekiko. Lehendik dagoen urbanizazioa, bestalde, finkatu egingo da.

Bestalde, ezker aldean dauden eraikinak finkatu egingo dira, beren eraikuntza- eta ezarpen-parametroekin (ibaiarekiko atzerapena, lerrokatutako, altuera, solairu-kopurua, eraikigarritasuna eta abar), eta horiek finkatzea bat dator LAPen aurreikuspenarekin, beheko atzerapenak finkatzekoarekin, besteak beste, bere garaian baimendutako ubideratze-obra egikarituta dauden kasuetan eta Anardi eta Badiologi artean Lasan finkatutako hiri-bilbearen etengabeko eraikuntza-garapena denean. Kasu horietan, eraikinen atzerapenak *bat etorri ahal izango dira lehendik dauden eraikinekin, baldin eta bide-zortasuneko eremua errespetatzen bada*, kasu honetan bezala, unean-unean, egoeraren batean.

- * Plan Partzialak Urola ibaiaren ertzak landareztatzea aurreikusten du eraginpeko eremuan eta, horrela, LAParen aginduari erantzuten dio, ibai-tarteren bat lehengoratzekoari. Urbanizazio-proiektuak zehaztuko du horren inguruan egikaritu beharreko proposamena.
- * Beraz, LAPean ezarritako baldintza guztiak betetzen dira eta bat etorriko da 2024ko urriaren 7ko txostenean xedatutakoarekin.

2.5.- EAEko Trenbide Sarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera egokitzea.

EAEko Trenbide Sarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa) EAEko aldirietako sarean Azkoitia eta Zumaia arteko trenbide-trazadura bat aurreikusten du, eremua zeharkatzen duena.

Plan Partzialak, Azpeitiko HAPOn arabera, trazadura-proposamen hori finkatuko du eta, ondorioz, LAPak horri buruz aurreikusitakoa beteko du.

Halaber, errespetatu egiten dira aplikatu beharreko legerian trenbidearen trazadurarako aurreikusitako distantziak (ikus II.2 planoa) eta bat etorriko da ETSren 2024ko abuztuaren 9ko txostenean xedatutakoarekin.

2.6.- EAEko Ekonomia-jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak Sortzeko Lurraldearen Arloko Planera egokitzea.

Plan hori indarrean dago lurzoru industrialei dagokienez.


Hainbat eremu estrategiko identifikatzen ditu Eremu Funtzionalen buru nagusietako (Zarautz eta Azpeitia Urola Kostakoan) ingurune periferikoetan eta komunikazio-korridoreetan dauden korridore espazialean.

Eremu horiei jarduera ekonomikoko eta hirugarren sektoreko hiri-izaerako garapen berriak espazioan kokatzeko Lehentasunezko Eremuak esaten zaie. Eremu horietako bat Azkotia-Azpeitia-Lasao korridorean identifikatu da. Korridore horrek industria-tradizio handia du, eta GI-631 errepidearen komunikazio-ardatzean oinarritzen da, Trukutxo barne hartuz.

Beraz, Plan Partzialak LAP honetan zehaztutakoari erantzuten dio.

2.7.- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planera egokitzea.

A.- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak, 2013ko ekainaren 5ean onartutakoak, Plan Partzialaren eremuari eragiten dio ondorengo grafikoan adierazten den moduan.



Marra gorria bat dator LAPean antolatuta eta dagoeneko egikarituta dagoen bizikleta-sareko tarte batekin.

B.- Plan Partziala

Dagoeneko egikaritutako bizikleta-sarearen zati hori Plan Partzialean aurreikusitako hirigintza-antolamenduan sartuta dago.

Halaber, Plan Partzialean sartzeak, trazadura hori bere osotasunean ibilbide publiko gisa identifikatzea ahalbidetzen du. Egoera hori ez da gaur egungoa, egungo partzelariotik ondorioztatzen den bezala (1.3 planoa).

Horrenbestez, dagoeneko egikarituta dagoen ibilbideak titulartasun publikoa izatea ekarriko du Plan Partzialak.

Nolanahi ere, bete egiten da LAPak Truktxo eremurako ezarritakoa.

2.8.- EAEko Nekazaritza eta Basozaintza antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera egokitzea.

Hurrengo grafikoan, LAPak Truktxo ingurunerako ezarritako antolamendu-kategoriak islatzen dira (berdea: basoa; horia: nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala, trantsizioko landa-paisaia; laranja: nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala, balio estrategiko handia).



Hala ere, lurralde-planen (lehen aipatutakoak barne) eta hirigintza-planen (Azpeitiko 2013ko HAPO barne) aurreikuspenek osatutako testuinguru globalean NBLAParen aurreikuspen horiek behar bezala irakurri eta aplikatu izanak, besteak beste, honako kontsiderazio hauek justifikatzen ditu:

A.- Bertan berariaz adierazitakoaren arabera, *behin betiko onartutako LPPak LAP honen gainera egongo dira, indarrean dagoen lurralde-antolamenduko legeriak ezarritako moduan* (LAPeko Antolamendu Arauetako "4.1" artikulua).

Horri dagokionez, kontuan izan behar da UKLPP otsailaren 21eko 32/2006 Dekretuaren bidez onartu zela behin betiko (2006-III-24ko EHAA, 59. zk.), eta haren 1. aldaketa, Trukutxo eta Amue eremuei buruzkoa, urtarilaren 27ko 14/2009 Dekretuaren bidez onartu zela behin betiko.

Testuinguru horretan, eta UKLPParen eta NBLAPren aurreikuspenak behar bezala irakurri eta aplikatzeko, honako hau adierazi behar da:

- * Indarrean dagoen Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea (4/1990 Legea) ezarritakoaren arabera, LAPak LPPen mende daude.


Horri dagokionez, nahikoa da gogoraraztea, Lege horretako "17.5" artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Arloko Planek Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroekin eta, hala badagokio, Lurralde Plan Partzialekin dituzten kontraesanak baliogabe utziko dituela edo dituztela horiek barne hartzen dituen edo dituzten Lurraldearen Arloko Planaren zatia edo zatiak.

- * *Lurraldearen Arloko Planek eremu funtzional osorako Lurralde Plan Partzial honen arabera egiten diren proposamenetan integratuko dituzte beren ekimenak (LAPeko Antolamendu Arauetako "2.38" art.).*

- B.- Bertan berariaz ezarritakoaren arabera, Nekazaritza eta Basogintza antolatzeke LAParen antolamendu-eremuak *EAE osoa hartzen du, aurretik zeuden hiri-eremuak izan ezik, eta halakotzat hartuko dira dokumentu hau behin betiko onartzen denean udal-plangintza orokorrak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen dituen eremuak* (LAPeko Antolamendu Arauetako "2.38" art.).

Horri dagokionez, kontuan izan behar da indarrean dagoen Azpeitiko HAPO behin betiko onartu zela 2013-IX-17ko udal-ebazpenaren bidez. Erabaki hori 2013-IX-25eko 183 zenbakiko GAOn argitaratu zen. Planaren testu bategina, araudia barne, 2013ko urriaren 11ko 195. zenbakiko GAOn argitaratu zen. Aurrerago, 2013-XI-6ko 211. zenbakiko GAOko argitalpen berri baten bidez, aurreko argitalpeneko hainbat akats zuzendu ziren.

Plan horrek lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen ditu "31. Trukutxo" eremuko lursailak, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala (gorria hiri-lurzoruari dagokio, laranja lurzoru urbanizagarriari eta berdea lurzoru urbanizaezinari).





Halaber, NBLAP behin betiko onartu zen 2014-IX-16ko Dekretuaren bidez (177/2014 Dekretua) eta 2014-X-17ko 198. zenbakiko EHAA-n argitaratua.

Testuinguru horretan eta bere Arauetako aipatutako "2.3" artikuluan adierazitakoari erreparatuta, "31. Trukutxo" eremua ez dago Nekazaritza eta Basogintza antolatzeneko LAParen antolamendu-eremuaren barruan, Azpeitian indarrean dagoen HAPOk lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua baitzuen NBLAP bera behin betiko onartu aurretik.

"2.3" artikuluko horretako aurreikuspen horren eta NBLAPeko planoen arteko ustezko kontraesana, kasu honetan, lehenengoaren alde ebatzi behar da, jarraian azalduko diren bi arrazoi osagarriak kontuan hartuta. Alde batetik, NBLAP egiteko prozesu luzearekin lotutako arrazoiak eta haren planoetako aurreikuspenetako batzuk behin betiko onartu aurreko uneetan (baita urteetan ere) zehaztearekin lotutakoak. Hori dela eta, NBLAPren antolamendu-eremuaren mugapen zehatza, planoetan islatzen dena, ez dator bat NBLAPren behin betiko onarpenaren uneen indarrean zegoen udaleko hirigintza-plangintzaren ondoriozko lurzoru urbanizaezinen mugapenarekin, urte batzuk lehenagoko mugapenarekin baizik. Bestetik, aztergai dugun kasuan, idatzizko aurreikuspenei aurreikuspen grafikoei baino balio handiagoa ematea justifikatzen duten arrazoi orokorrak.

Azkenik, adierazi behar da egungo errealitatea ez datorrela bat bere garaian aipatutako kategorizazioa eragin zuen egoerarekin.

Horren ondorioz, Plan Partzialak ez du kontraesanik LAPean xedatutakoarekin.

2.9.- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikora egokitzea (35/2023 Errege Dekretua, urtarilaren 24koa).

2022-2027 zikloan, PHak eta UAKPak (Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana) honako jarduerak ardatz hauek dituzte: prebentzio-politika, azaleko ur-masen eta eremu babestuen egoera babesteko eta hobetzeko printzipioa eta klima-aldaketaren agertokiak egokitzea.

Plan Partzialaren eremua Urolaren ibilguaren zaintza-gunean dago, eta egoera ekologiko ona du ibilbidearen tarte horretan, ertz gehienetan ubideratze-hormak dituen arren. Plan Partzialak, bestalde, ur-ekosistemak babesteko hainbat neurri ahalbidetzen ditu.

Proposamena, bestalde, bat dator URAk espedienteari buruz egindako txostenean xedatutakoarekin eta jabari hidrauliko publikorako (JPH) gaur egun ezarritako mugapenarekin.

3.- Azpeitiko 2013ko Plan Orokorreara egokitzea.

Azaldukoaren arabera, Plan Partzial hau indarrean dagoen HAPO garatzeko sustatu da, "31 Trukutxo" eremuaren antolamendu xehatua zehazteko.

Plan Partziala eta bere proposamenak Plan Orokor horren aurreikuspenetara erabat egokitzen dira, eta honako arrazoi hauei erantzuten die:



A.- Sestra gainean antolatutako hirigintza-erakigarritasuna 56.691,75 m² (s) da, hau da, HAPOn aurreikusitakoaren baliokidea: 0,25 m²(s)/m² zonako azalerari dagozkionak (226.767 m²). Hori guztia industria-erabileretara bideratuko da. Horrekin, HAPOn xedatutakoa betetzen da.

B.- Zonakatze xehatua bat dator HAPOk ezarritako zonakatze globalarekin, industria-eremu komun bat identifikatzen duenarekin, bai eta eremua zeharkatzen duten hainbat sistema orokorrekin ere.

Horrek aukera ematen du lehendik dagoen eraikina finkatzeko. Lehen justifikatu den bezala, Plan Partzialak lege aurreikusitako hirigintza-estandarrei erantzuten die, bai eta HAPOn modu osagarrian eskatzen direnei ere. Horrekin, HAPOn xedatutakoa betetzen da.

C.- Plan Partzialak eta bere IAEk proposatutako garapena ingurumenean integratzeko behar diren neurriak jasotzen dituzte. Horrekin, HAPOn xedatutakoa ere betetzen da modu osagarrian.

XIX.- PROPOSAMENEN LABURPENA.

"31 Trukutxo" eremua Lasaoko hiri-continuumean dago, Anardi eta Badiolegi artean, Azpeitiko udalerrian.

Urola ibaiaren inguruan dago, zeharkatu egiten baitu. Eremuaren hirigintza- eta eraikuntza-garapena industria-erabilerarekin lotuta dago, lehen aipatutako Anardi eta Badiolegiko kokapenen erabilerarekin bat etorritik, elkarren segidan sustatu eta gaur egun finkatuta daudenekin.

Trukutxo eremuan gaur egun dagoen egoera duela 10 urte baino gehiago egindako hainbat obraren ondoriozkoa da. Batzuek honako helburu hauek izan dituzte: GI-631 errepidea biribilgune berri batekin berrantolatzea, biribilgunetik Anardirako sarbideak eraldatzea eta aparkaleku berri bat egikaritzea. Beste obra batzuek Urola ibaiaren ezker aldean plataforma bana egitea ekarri dute. Eskuinaldean beste plataforma gehigarri bat egin da eta zubi berri baten bidez iristen da aurrenekoetatik. Horretarako, horma bat egin zen Urola ibaiaren ezker aldean eta harri-lubeta bat Anardi Badiolegiko HUArekin lotzen duen bidearen ekialdean. Beste batzuek hainbat eraikin egitea ekarri dute, horietako bat tamaina handikoa. Azkenik, beste obra batzuen helburua Urolako bizikleta eta oinezkoentzako bideari jarraipena ematea izan da, Badiolegitik HUA baino beheago Urola zeharkatzen duen oinezkoentzako pasabideraino. Bestalde, askotarikoak dira eremuan egindako zerbitzu-azpiegiturak eta azpiegitura horiek hartzen dituzten galeriak.

Horren guztiaren ondorioz, eremuan uholde-arriskua minimizatu da, bide-iragarritasuna hobetu da eta trenbide-sarea finkatu da.

Testuinguru horretan eginda, eremu horren hirigintza-araubide xehatua zehaztea da Plan Partzial honen helburua.



Honako hauek dira xede horrekin planteatutako proposamen garrantzitsuenetako batzuk:

- A.- Finkatu egin dira obrak eta lehendik dauden eraikinak.
- B.- Eremuari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna antolatu da. Xede horretarako, "b.10.1" eta "b.10.2" partzela industrialak identifikatu dira; bigarrenak Udalarik lege dagokion hirigintza-eraikigarritasunaren % 15 hartzen du.
- C.- URAk aurkeztutako dokumentazioaren arabera, jabari publiko hidraulikoa eta horren zortasun-eremua behar dira.
- D.- Tokiko bideei eta espazio libreei dagozkien tokiko zuzkidura publikoak identifikatu dira. Urbanizazio-proiektuak zehaztuko ditu, bereziki, antolatutako espazio libreak urbanizatzeko, landareztatze eta abarretarako baldintzak.
- E.- Eremuan "AAI.1/31" jarduketa integratuko eremu bat mugatu da, sektore osoari dagokiona.

Donostian, 2025eko otsailean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo





ERANSKINAK

- 1.- Azpeitiko 2013ko Plan Orokorreko "31 Trukutxo" hirigintza-eremuko Hirigintza Arau Partikularra.
- 2.- Plan Partzial honetan proposatutako antolamenduaren ezaugarrien taulak.
- 3.- Irisgarritasuna sustatzeko indarreko araudia betetzearen justifikazioa.
- 4.- Nahikoa ur-baliabide eta saneamendu-zerbitzu daudela berresteko kontuan hartu beharreko parametroak.
- 5.- Ur Partzuergoaren txostena, ur-baliabideak eta saneamendu-sarea erabilgarri egoteari buruzkoa.
- 6.- Ingurumen Organoaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa.



"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA 1.1 ANTOLAMENDU-MEMORIA DOK.
AZPEITIA. 2025eko otsaila



ERANSKINAK.

1. ERANSKINA

"31 Trukutxo" Hirigintza Eremuaren Hirigintza Arau Partikularra.
(Azpeitiko 2013ko Plan Orokorra)



"31. TRUKUTXO" HE

I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA AZALERA

Plan Orokor honetan mugatu eta identifikatutako eremu berria da, Lasao inguruan, udalaren iparraldean, Anardin ekonomia-jarduerak okupatutako lurzoruen jarraitu hiritarren kokatutakoa eta Urola ibaiaren bi ertzetan garatutakoa.

Bere mugapena Plan Orokor honetako "II.1.4 Lurzoruen sailkapena. Hirigintza Eremuen Mugapena (Hiri-ingurunea)" planoan dago jasota .

259.786 m²-ko azalera du.

II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK

- * Eremuaren hirigintza-garapena antolatzea Corrugados Azpeitia enpresaren instalazioen (txatar-biltegia, galdategia eta horien instalazio laguntzaileak) lekualdaketa, Amue eremutik (Azpeitiko hirigunean kokatuta) kentzea planteatzen dutena, udalari barruan mantenduz, lurralde-antolamendutik formulatu eta Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean jasotako aurreikuspenen arabera (14/2009 Dekretua, urtarrilaren 27koa).
- * Eremua mugatzea Ugalditzako ibarbidean inpaktua minimizatzeko, egindako ingurumen-inpaktuen ebaluazio bateratuaren azterlanean jasota dagoen bezala, eta Anardiko eremu finkatuan, bide- eta trenbide-trazatueta eta lehen aipaturiko Lurralde Plan Partzialak araztegiaren iparraldean finkatutako nekazaritza-intereseko lurzoruetan mugapen zehatzak aurkituz.
- * Xede nagusizat ezaugarri eta helburu oso zehatzeko ekonomia-jarduerak ezartzea duen eremua antolatzea, eremua zehaztasunez mugatzea eta dagokion hirigintza-erregimenaren definizio espezifiko behar dutenak.
- * Komunikazio-bideen eta Urola ibaiaren trazatuak (bideak, bizikletentzak eta trenbideak) antolatzea eremuan igarotzen diren tartean. Proiektatutako trenbide-sarera salgaiak sartu ahal izateko eremuan sarbide zuzena antolatzea ahalbidetzen du proposamenak.
- * Eraginpeko ibai-ibilguak eta horien ertzak tratatzeko irizpideak indarrean dauden EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Arloko Planean (isurialde kantauriarra) eta Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Plan Partzialean xedatutakora egokitzea.





III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

1.- Kalifikazio orokorra

1.1.- B.10/31 EREMUA (Industrialdea) (Azalera: 226.765 m²)

A.- Eraikuntza-baldintzak.

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

* Sestra gainean: 0,25 m²(t)/ m².

* Sestra azpian:

Eremu orokor osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokor honetako “B.1 Hirigintza Arau Orokorrak” dokumentuan izaera orokorrarekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.

b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak: eraikinaren solairu-kopurua eta garaiera.

Parametro horiek eremuan sustatu beharreko Plan Partzialean antolamendu xehatuaren berezko izaerarekin xedatutakoak izango dira.

B.- Erabilera-baldintzak.

Erabilera-baldintza orokorrak Plan honetan (“B.1 Hirigintza Arau Orokorrak” dokumentua) “B.10” eremu orokorrerako izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.2.- E.10/31 EREMUA (Errepide eta Hiriko Bide nagusiak) (Azalera: 12.824 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan (“B.1 Hirigintza Arau Orokorrak” dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.3.- E.20/31 EREMUA (Ibilbide Berezien Sarea, bizikletadunentzako - oinezkoentzako)..... (Azalera: 4.478 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan (“B.1 Hirigintza Arau Orokorrak” dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.





1.4.- E.30/31 EREMUA (Trenbide sarea)..... (Azalera: 840 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.5.- H.10/31 EREMUA (Ibai Ibilguak) (Azalera: 14.877 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira. Urola ibaiaren eta Ugalditza errekaen ibilguak ere hartzen ditu.

2.- Sistema lokalen sarea arautzeko baldintza orokorrak.

Izaera xehatuarekin zehaztu beharreko azaleko uren babes-eremuen mugapena eta zehaztapena indarrean dauden EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Arloko Planean (isurialde kantauriarra) eta, bereziki, Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean xedatutakora doituko dira.

Plan Partzialak antolatu beharreko espazio librean tokiko sistemak 7.000 m²-ko gutxieneko azalera izan behar du, legez eskatutakoaren gehigarria.

3.- Hirigintza-sailkapena.

Eremuko lur guztiak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatu dira.

4.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

Eremuaren antolamendu xehatua eremuan bertan xede horrekin sustatu beharreko Plan Partzialean zehaztuko da.

5.- Programazio- eta egikaritzapen-erregimen orokorra.

A.- Egikaritzapen eta programazio orokorreko erregimena.

Eremu horretan proposatutako jarduketaren garapena eta egikaritzapena Azpeitiko etorkizuneko hirigintza-garapenaren testuinguruan Plan Orokor horretan aurreikusitako interbentzio estrategikoetako bat dira. Hala, helburu horrek eta sortutako egoerak planteatutako proposamenen garapen-prozesua berehala hastea justifikatzen dute, horretarako behar diren hirigintza-dokumentuak elaboratzearekin eta izapidetzearekin zerikusia dutenak barne.

B.- Garapen-plangintza elaboratu eta onartzeko epeak.





Plan honen indarraldiko lehen lauhilekoan elaboratu eta onartuko da Plan Partzialaren espedientea, hura indarrean sartzen denetik kontatzen hasita. Plan Partzialak zehaztuko du egikaritzeko epea Amuko jarduketarekin koordinatuta, antolamenduko bi helburuak betetzea ahalbidetuz: (i) Amue eremuaren hiri-eraldaketa; eta (ii) Corrugados Azpeitia Trukutxon ezartzea.

C.- Sistema orokor publikoak lortu, egikaritu eta ordaintzeko erregimena.

Sistema orokorren sareko zuzkidura publikotara zuzendutako hirigintza-eremuko lurak, haiek lortu, egikaritu eta finantzatzeko xedez, egikaritzapen-eta programazio-erregimen orokorrari dagokionez zehaztutakoaren arabera mugatu beharreko jarduketa integratuko eremuan edo eremuetan nahiz egikaritz-unitatean edo -unitateetan txertatu edo atxikiko dira.

Izapidetu beharreko Plan Partzialak identifikatuko ditu behar diren Jarduketa Integratuko Eremua edo Eremuak, aldi berean Hirigintzako Jarduketa Programaren edo Programen xede izango direnak.

IV.- HIRIGINTZA-ERREGIMEN XEHATUA.

1.- Kalifikazio xehatua.

A.- Azpieremu xehatu antolatuen tipologiak zehazteko eta mugatzeko baldintzak.

Baldintza horiek eremu osorako sustatu beharreko Plan Partzialean zehazten direnak izango dira, bere antolamendu xehatua zehaztearen xedeetarako.

B.- Azpieremu antolatuen eraikigarritasun fisikoa.

Eraikigarritasuna aipaturiko Plan Partzialak zehaztutakoa izango da.

C.- Partzeletako eraikuntzaren forma arautzeko baldintzak: eraikuntzaren garaiera eta solairu-kopurua.

Baldintza horiek eremu osorako sustatu beharreko Plan Partzialean zehazten direnak izango dira, bere antolamendu xehatua zehaztearen xedeetarako.





D.- Antolatutako azpieroemu xehatuon erabilera-baldintzak.

Baldintza horiek eremu osorako sustatu beharreko Plan Partzialean zehazten direnak izango dira, bere antolamendu xehatua zehaztearen xedeetarako.

E.- Jabari-baldintza partikularrak.

Baldintza horiek eremu osorako sustatu beharreko Plan Partzialean zehazten direnak izango dira, bere antolamendu xehatua zehaztearen xedeetarako.

F.- Eraikinen atzerapena ibai-ibilguketik.

Urola ibaiari eta bere ertzei dagokienez, hain zuzen ere, eraikinen atzerapenari, babes-eremuari eta abarri dagokienez, gaian aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako irizpideak bete beharko dira, indarrean dagoen EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Arloko Plana (isurialde kantauriarra) eta, bereziki, Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.

V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.

Dagozkion xedeetarako, kontuan izan behar da, eremuan Urola ibaia, "GI-631" errepidea, eskualdeko bizikleta-sarea eta Urola haranerako proposatutako trenbide-sarea daudela.

Plan Orokor honetan mugatutako eremu akustikoei lotutako baldintzak aplikatuko dira.

VI.- APARTEKO ERAIKUNTZAK EDOTA ELEMENTUAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK.

Eremuan lehendik dagoen elementu eta eraikinik ez da jaso Plan Orokor honetako Katalogoan.

VII.- EGIKARITZAPEN-ERREGIMEN ESPEZIFIKOA.

1.- Urbanizazio-erregimena.

Erregimena, alde batetik, azpieroemuan sustatu beharreko Plan Partzialean zehaztutakoa izango da eta, bestetik, xede horrekin bere garapenean formulatu beharreko proiektuetan zehaztutakoa.





2.- Hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak.

Kontu horri dagokionez, eremuan sustatu beharreko Plan Partzialak zehazten duena bete beharko da. Une honetan ez dago hirigintza-antolamenduarekin bat ez datorren eraikinik.

3.- Egikaritzapeneko lege- eta hirigintza-araubidea.

Bertan sustatu beharreko Plan Partzialean nahiz bere garapenean formulatu beharreko proiektuetan zehaztutakoa izango da eremuan egikaritu beharreko lege- eta hirigintza-erregimena, planteatutako antolamenduaren hirigintza-egikaritzapenari aurre egite aldera.

Sortutako urbanizazio-karga guztien ordainketa, eraginpeko ibaien ertzen arteko lotura hobetzeko obrak eta jarduketak egikaritzekoak barne, ondoriozko hirigintza-eskubideen titularrei dagokie, lege-lagapen gisa udalari dagozkionak alde batera utzita.

VIII.- INGURUMEN-ARLOKO ETA PAISAIA-INTEGRAZIOKO NEURRIAK.

- * Plan Orokor honetako Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanean aurreikusitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak eta Azterlan horretan jasotako berrikuspen-programari atxikitako neurriak aplikatuko dira.
- * Eremuaren hirigintza-garapenaren egikaritzapena “B.1 Hirigintza Arau Orokorrak” dokumentuko 7. artikuluan aipaturiko udal-ordenantzetan honako gai hauen inguruan xedatutako irizpideetara doituko da: atmosferaren eta airearen kalitatea babestea obrek irauten duten bitartean; sortzen diren hondakinak bildu, tratatu eta biltegiatzea; obren ondoriozko zarata, hautsa eta abar ezabatu edota minimizatzea; Ordenantza horiek arautzen dituzten eta aplikatu beharrekoak diren beste edozein kontu.
- * Eremuan planteatutako proposamenak garatu eta egikaritzeko prozesuaren kontrolak, bereziki eta beste alderdi batzuen artean, higadura-arriskueta (mendi-hegalean eragina), hondakin-sorkuntzan eta azaleko uren kalitatean eta ertzeko tratamenduan eragin behar du. Horretarako, ibai-ertzeko zuhaixka-/zuhaitz-zerrenda trinko baten antolamendua aurreikusten da Urolaren bi ertzetan eta horretarako behar diren atzerapenetan oinarrituta.

IX.- GRAFIKOAK.

Arau Partikular honetan ez da grafikorik jaso.





"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA 1.1 ANTOLAMENDU-MEMORIA DOK.
AZPEITIA. 2025eko otsaila



ERANSKINAK.

2. ERANSKINA

**PLAN PARTZIAL HONETAN PROPOSATUTAKO
ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK**

SUSTATZAILEA





"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA 1.1 ANTOLAMENDU-MEMORIA DOK.
AZPEITIA. 2025eko otsaila

ERANSKINAK.

1. EZAUGARRI OROKORRAK

- Trukutxo eremuaren azalera: 259.786 m²
- Industria-erabilerarako zona globala: 226.767 m²
- Sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna: 56.691,75 m²(s)

2. ZONAKATZE XEHATUA

KALIFIKAZIO XEHATUA	Azalera m ²	Azalera m ²
"B.10. Zona industrialia"		186.874
"b.10.1 Zona industrialia"	158.166	
"b.10.2 Zona industrialia"	28.138	
"e.10 Errepideak eta Hiri barruko Bideak"		16.567
"e.10.1" (S.O.)	13.129	
"e.10.2.1"	1.751	
"e.10.2.2"	1.155	
"e.10.2.3"	532	
"e.20.1 Ibilbide Berezien Sarea. Oinezkoak-bizikletak". (S.O.)		1.460
"e.30.1 Trenbide-sarea". (S.O.)		1.540
"f.10 Hiriko Espazio Libreak"		34.260
"f.10.1"	20.225	
"f.10.2"	11.585	
"f.10.3"	2.450	
"f.20.1 Espazio libre komunak" (S.O.)		478
"h.10 Ibai Ibilguak"		20.820
"h.10.1" (S.O.)	20.080	
"h.10.2" (S.O.)	740	
TRUKUTXO EREMUA GUZTIRA		259.786

(1). Bi kota desberdinetan dagoenez, eremu batzuk gainjarri egiten dira eta azpideremuen batura eremuaren azalera osoa baino handiagoa da.

Goiko eta beheko mailai dagozkien azalerak (II.1 plano):

KALIFIKAZIO XEHATUA	Goiko maila m ²	Beheko maila m ²
"B.10. Zona industrialia"	186.784	185.194
"b.10.1 Zona industrialia"	158.346	156.756
"b.10.2 Zona industrialia"	28.138	28.138
"e.10 Errepideak eta Hiri barruko Bideak"	16.517	16.338
"e.10.1" (S.O.)	13.129	12.910
"e.10.2.1"	2.001	2.041
"e.10.2.2"	1.155	1.155
"e.10.2.3"	532	532
"e.20.1 Ibilbide Berezien Sarea. Oinezkoak-bizikletak". (S.O.)	1.423	1.246
"e.30.1 Trenbide-sarea". (S.O.)	771	1.540
"f.10 Hiriko Espazio Libreak"	33.862	34.170
"f.10.1"	20.095	20.225
"f.10.2"	11.499	11.495
"f.10.3"	2.268	2.450
"f.20.1 Espazio libre komunak" (S.O.)	478	478
"h.10 Ibai Ibilguak"	19.951	20.820
"h.10.1" (S.O.)	19.315	20.080
"h.10.2" (S.O.)	636	740
Lan produktibo eta erreproduktiboen katea gehienbat egiten duten pertsonen (emakumeen) joan-etorrietarako, garraio-modu ez-motordunak eta garraio publikoa erabiltzen dituzten heinean, hiri-ingurunea eta bertan aurreikusitako garapenak egokiro eta zentzuz txertatu behar dira garraio-modu horien sareetan. Helburu hori Azpeitiko udalerriaren berezko baldintzetara ere egokitu behar da.

C.- Lasaia, barea eta segurua den, eta, aldi berean, zerbitzu egokiak dituen hiri-ingurunea antolatzea.

Aipatutako lanak eta, bereziki, lan erreproduktiboak edo zaintza-lanak aipatutako baldintzetan egiteak (garraibide ez-motordunak horretarako erabiltzearekin lotutakoak barne), mendekotasuna duten pertsonengan (haurrak, adinekoak, mugikortasun murritua duten pertsonak) duten eragina gehituta, hiri-ingurune lasai, bare eta seguru bat antolatzea justifikatzen du, bertatik elementurik agresiboak edo distortsionatzaileak bereiziz (igarotzeko bide-sareak...).

D.- Segurtasuna eta inklusibitatea.



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

Kontuan hartu beharreko beste helburuetako bat da hiri-ingurune seguru eta inklusibo bat antolatzea, baita haren pertzepzioaren ikuspegitik ere. Haren konplexutasun guztian kontuan hartuta, honako premisa hauei estuki lotutako helburua da:

- * Ikusgarritasuna, ikusteko eta ikusia izateko aukera ematen duen erreferentetzat hartuta.
- * Espazio publikoan egokitzen diren hiri-altzariak eta -instalazioak jartzea.
- * Jendea elkartzea, entzuteko eta entzuna izateko aukera ematen duen parametrotzat hartuta.
- * Zaintza formala eta laguntza eskuratzea, laguntza lortzea edo ihes egin ahal izatea errazten duen premisatzat hartuta.
- * Seinaleztapena, non gauden eta nora joan nahi dugun jakitea ahalbidetzen duen parametrotzat hartuta.
- * Tokiak planifikatzea eta mantentzea, bai giro garbi eta atsegina batean bizitzeko, bai aurreko helburuak lortzeko.
- * Komunitatearen parte-hartzea, aurreko helburuak lortzeko beharrezkoa den erreferente gisa, inplikazio eta erantzunkidetasun kolektibotik abiatuta.

E.- Hiri-ingurune dentsoa eta trinkoa, eta, aldi berean, fisikoki jarraitua.

Aurreko helburuen sinesgarritasuna eta bideragarritasuna lotuta daude, besteak beste, hiri-dentsitate edo -dimentsionamendu egokia duen hiri-ingurunea antolatzearekin (etxebizitzaren zenbatekoa, jarduera ekonomikoak...) eta hiri-garapen berriak ingurune horretan behar bezala txertatzearekin, hiri-bilbe jarraitua eta konektatua sortuz.

Hiri-dentsitatea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da gainerako esku-hartze helburu eta ardatzei erantzutea, erabilera-nahasketarekin eta zuzkidura eta zerbitzu egokien antolaketarekin lotutakoak barne. Hori bai, dentsitate eta trinkotasun horiek arautzeko neurriak honako bi baldintzatzaile hauetara behar bezala egokitu behar dira. Alde batetik, sustatu nahi diren erabilerak lehendik daudenekin eta, zehazki, lehendik dagoen hiri-bilbearekin bateragarriak edo bateraezinak izatea. Horrela, hiri-ingurunearen jarraitutasun materiala, neurri handi batean, lehendik dauden erabileren bateragarritasunarekin eta/edo ingurune horretan ezarri beharrekoarekin lotuta dagoela ulertu behar da; aldi berean, bateraezinak direnak dagozkien urrutze- eta/edo isolamendu-neurriak izan behar dituzte. Bestetik, Azpeitiaren ezaugarriak eta hiri-baldintzatzaileak.

2.2.- Aurreko helburuei lotutako esku-hartze irizpide orokorrak.

Helburu orokor horiek lortzeko justifikatu egiten du, baita genero-ikuspegitik ere eta hirigintza-plangintzari dagokionez, jarraian azalduko diren esku-hartze irizpide orokorrak zehaztea, era berean adierazten diren gaiekin lotuta:

A.- Hirigintza-garapen orokorreko eta, horren barruan, hiri-ingurunearen garapenerako eredu bat zehaztea, besteak beste, honako alderdi hauek justifikatzen dituzten adierazitako helburuekin bat datorrena:



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

- * Erabilera mota desberdinen presentzia kualitatiboa eta kuantitatiboa (etxebizitzak, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak, espazio libreak...), elkarren artean bateragarriak direnak eta, bereziki, bizitegitarako hiri-ingurunea dibertsifikatzen eta aberasten dutenak.
- * Bizitegitarako hiri-ingurunean, bere ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateraezinak diren erabilerak mugatzea edo debekatzea, bertan ondorio kaltegarriak eragiten dituztelako (sortzen duten trafikoari; jarduera osasungaitz eta arriskutsuen ezarpen eta garapenari; behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoiri lotutakoak).
- * Dentsitate eta trinkotasun kualitatibo eta kuantitatiboa, Azpeitiko baldintzatzaileetara eta dagozkien erabileren bateragarritasunera egokitua eta, ahal den neurrian, hiri-bilbearen jarraitutasun fisikoarekin eta hirigintza-berroneratze prozesuen jarraitutasunarekin osatua, hala eskatzen duten bilbe horretako zatietara hedatuz.

B.- Zuzkidura eta zerbitzu egokiak antolatzea eta ezartzea.

Azpeitiko hiri-inguruneak kasuan kasuko ekipamenduak, espazio libreak eta hurbileko zerbitzuak izan behar ditu (merkataritza barne).

Hori guztia, gainerako esku-hartze helburu eta irizpideekin bat etorriz eta modu bateragarrian.

C.- Mugikortasun-sare egokiak antolatzea (oinezkoenak eta bizikletenak bereziki) eta horietan hirigintza-garapenak txertatzea.

Hiri-garapen horiek udalerriaren barruko konexioari eta mugikortasunari dagokienez garraio-modu jasagarrien (ez-motorduna eta, hala badagokio, garraio publikoa) sareetan sartuta egon behar dute, edo erraz sartzeko modukoak izan behar dute.

D.- Hiri-ingurunearen eta haren espazio publikoaren segurtasuna eta inklusibitatea.

Hiri-ingurune seguru eta inklusiboa antolatzeak justifikatu egiten du jarraian azalduko diren irizpideetara egokitzea, era berean aipatzen diren esku-hartze eskala edo fase desberdinei lotuta:

- * Hiri-ingurune sozial eta funtzionalki bizia eta dinamikoa sortzea, aipatutako trinkotasun-ereduari, erabilera-nahasketari eta abarri erantzuneko diona.
- * Espazio publikoaren eta eraikinen antolamendua, adierazitako helburuari erantzuteko moduan eta, horretarako, honako gai hauek kontuan hartuta: jendea ibiltzen den eta biziak diren kaleak, ibilbideak eta abar antolatzea, ikuspegi eta horizonte bisual irekiekin eta argiekin; argiztapena; hiri-ikuspegitik zokoak, ezkutalekuak, ibilbide edo espazio *hutsak* kentzea; bizitegi-eraikuntzetara eta -partzeletara, bai eta horietan kokatutako etxebizitzetara ere sartzeko baldintzak zehaztea, aipatutako helburuarekin bat etorriz; eta abar. Nolanahi ere, irizpide horiek gauzatzea esku-hartzeko eskala desberdinei



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

lotuta dago. Hala, horietako batzuk hirigintza-antolamendua bera zehaztearekin lotuta daude. Beste batzuk, espazio publikoan esku hartzearekin, urbanizazio-lanen proiektuen bidez (argiztapena, hiri-altzariak, beste zerbitzu mota batzuk ezartzea, haurren jolas-guneen ezaugarriak eta baldintzatzaileak, etab.).

- * Hiri-garapen berriak antolatzea (hiria eraberritzeko eta berroneratzeko jarduketan ondoriozkoak barne), hiri-garapen horien segurtasuna eta inklusibitatea bermatzeko neurriak bertan sartuz.
- * Egungo puntu kritikoak pixkanaka ezabatzeko beharrezko neurriak zehaztea.

2.3.- Trukutxoko industria-garapenaren berezko baldintzatzaileak eta Plan Partzialean aurreko helburu eta irizpideak sartzeara.

Hasiera batean, Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat egitea eta/edo hori osorik berrikustea da aurreko ataletan azaldutako helburu eta irizpideei erantzuneko dien hiri-eredu bat zehazteko testuinguru egokia. Hori da testuinguru egokia, bere osotasunean eta konplexutasunean, horri buruzko beharrezko hausnarketa sustatzeko eta egokitzea jotzen diren erabakiak hartzeko.

Horren aurrean, Trukutxoko Plan Partziala indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorra garatuz sustatu da, horrek zehazten baitu haren helburu industrialak. Hona hemen testuinguru horren ondoriozko baldintzatzaileetako batzuk, Plan Partzial horren prestaketan eta proposamenen zehaztapenean eragin handia dutenak:

- * Plan Partzialak Plan Orokorren aurreikuspenak errespetatu behar ditu, bere zereginaren arabera garatuz eta zehaztuz.
- * Trukutxon ezarri beharreko industria-erabilerak, hasiera batean, bateraezinak dira Azpeitiko bizitegi-ingurunearen berezko ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin, bertan ondorio kaltegarriak sortzen dituztelako edo eragin ditzaketelako (sortzen duten trafikoarekin, ezarpenarekin, jarduera osasungaitz eta arriskutsuen garapenarekin eta abarrekin lotuta). Hori dela eta, Trukutxoren kokapena, Azpeitiko hiri-bilbetik urrun egotea barne, bat dator bertan bilbe horrekin bateraezinak diren erabilerak ezartzeko helburuarekin.
- * Helburua udalerrian jarduera ekonomikoak ezartzea da eta, horrela, bertan bizi diren biztanleentzat eta, hala badagokio, eskualdekoentzat enplegua sortzea. Eta hori, adierazitako bateraezintasunak kontuan hartuta, ezarpen horrek bizitegi-ingurunean distorsiorik eragin gabe.



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

- * Azpeitiko eskalan kontuan hartuta eta ezarri beharreko erabileren (bizitegitarako hiri-bilbearekin bateraezinak diren industria-erabilerak) baldintza bereziak kontuan hartuta, esan behar da Trukutxoko industria-garapena bat datorrela Azpeitian hiri-ingurune bat sortzeko helburuarekin, multzoaren hurbiltasun-helburuei erantzungo diena. Trukutxok egungo hiri-bilbearekiko duen jarraitutasunik ezak ez du kontraesanik helburu horrekin, xede duen erabileraren berezitasuna kontuan hartuta.
- * Hemen nabarmendu egin behar da, Udaleko berdintasun-teknikariak apirilaren 24an dokumentua izapidetzean gaiari buruz egindako aldeko txostenean adierazitakoaren ildotik, Trukutxo eremuak autobus-geraleku bat duela antolatutako industria-eremu berriaren ondo-ondoan, eta Urolako oinezko- eta bizikleta-sareak mugikortasun ez-motordunerako (oinetakoak eta txirrindulariak) sarbidea errazten duela, eta egiturazko plangintzak behar diren hirigintza-zehaztapenak dituela Trukutxo eremutik hurbil tren-geltoki bat izan dezakeen trenbide-sare bat ezarri ahal izateko. Errealitate horiek berariaz jaso dira ebaluazio honen xede den Plan Partzialean. Proposatutako antolamenduak aukera ematen du aurreikusitako espaloietatik partzeletara oinez iristeko.

VI.- PLAN PARTZIALAREN PROPOSAMENEN EBALUAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK.

1.- Sarrera.

Aztertzen ari garen eremua Azpeitiko bizitegitarako hiri-ingurunetik hurbil dago, baina handik kanpo.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Plan Partzialaren helburua da Trukutxoko industria-garapenak behar dituen hirigintza-neurri xehatuak zehaztea, udalerrian mota horretako jarduera ekonomikoak ezartzea bultzatzeko eta, ondorioz, Azpeitiko biztanleen mesederako izango den enplegua sortzeko.

Proposamenak genero-ikuspegitik ebaluatzeak justifikatzen du, besteak beste, honako bi egoera hauek kontuan hartzea.

Batetik, V. epigrafean azaldutako helburuak eta irizpideak, Trukutxoko Plan Partzialaren berezko berezitasunetara egokituta.

Bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Azpeitiko Planean jasotako neurriak eta aurreikuspenak (III. epigrafeko 2. ataletan azalduta).

Hurrengo ataletan ebaluazio hori azaltzen da.

"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.



2.- Plan Partzialaren proposamenak eta horien ebaluazioa, V. epigrafean azaldutako helburuen eta irizpideen ikuspegitik.

2.1.- Planteatutako proposamenen edukia.

A.- Planteatutako proposamenek, eta horien ondoriozko hiri-ereduak eta afekzioek honako hauek dakarte:

- * Udalerriko jarduera ekonomikoen eta enpleguaren eskaerari erantzutea.
- * Aurreikusitako garapen industrialaren ezartzea:
 - Egungo hiri-bilbetik kanpo, hiri-bilbearen berezko ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateraezina delako.
 - Azpeitian bertan, bizitegiarako hiri-bilbetik erraz eta eroso iristeko moduko ingurunean.
- * Industria-garapen hori eskatutako zuzkidurekin eta/edo harekin bat datozenekin osatzea: komunikazio-sarea (ibilgailuentzako bideak, bidegorria, espazio libreak, etab.).
- * Irigarritasun-baldintza egokiak izatea mugikortasun motordunerako nahiz ez-motordunerako, aurreko V. epigrafearen amaieran adierazi den bezala, behar den garraio publikoko zerbitzua antolatzearen kalterik gabe.
- * Mugikortasun ez-motordunerako bitartekoak (oinezkoak, bizikletak...) indartzea, bi sareek Trukutxoko eremua zeharkatzen dutela eta mugikortasun-modu jasagarriekin bat datozela aprobetxatuz.
- * Ondoriozko hiri-ingurunearen segurtasuna eta inklusibitatea.
- * Azpeitiko hirigunean dagoen eta nagusiki bizitegi-erabileretarako izango den Amue eremuaren hirigintza-erlaketak sustatzeko behar diren baldintzak gauzatzea.

B.- Aurreikusitako industria-garapena lagungarria izango da udalerrian jarduera ekonomikoak ezartzeko eta udalerriko enplegu-eskaerari erantzuteko.

Justifikatuta dago Azpeitiko egungo hiri-bilbetik kanpo ezartzea, ezarri nahi diren industria-erabileren berezitasunagatik eta bilbe horrekiko bateraezintasunagatik.

Beraz, helburua, eskaera horri udalerrin beraren barruan erantzutea da, horretarako ingurune egoki batean. Egungo bizitegiarako hiri-bilbetik kanpo, horrekin bateraezina delako, baina handik hurbil, proposatutako garapenaren xede den eremurako sarbidea erraza eta erosoan izan dadin.

C.- Azpeitian ezartzea lagungarria izango da herrian bizi eta Trukutxon lan egiten dutenek lanerako joan-etorriak arrazionalizatzeko eta murrizteko.



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

* Testuinguru horretan kontuan hartuta eta ezarri beharreko erabileren (bizitegitarako hiri-bilbearekin bateraezina diren industria-erabilerak) baldintza bereziak kontuan hartuta, esan behar da Trukutxoko industria-garapena bat datorrela Azpeitian hiri-ingurune bat sortzeko helburuarekin, multzoaren hurbiltasun-helburuekin bat datorrena. Trukutxok egungo hiri-bilbearekiko duen jarraitutasunik ezak ez du kontraesanik helburu horrekin, xede duen erabileraren berezitasuna kontuan hartuta.

Horren aurrean, lan egiteko beste udalerrir batera joan behar izateak dagozkion joan-etorriak eta horiek behar duten denbora areagotzea ekarriko luke. Eta aipatutako hiri-ingurunearen hurbiltasun- eta gertutasun-helburuetatik aldendu litzateke.

Gainera, eremura mugikortasun-modu ez-motordunetan eta garraio kolektibo eta publikoaren bidez iristeko baldintzak bermatuta daude hirigintza-plangintzan.

- D.- Industria-garapena dagozkion eta behar diren zuzkidura publikoekin osatzen da (bideak, espazio libreak...).
- E.- Indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorren aurreikuspenei erreparatuta, Trukutxoko industria-garapenak Amueko bizitegi-garapena ahalbidetuko du, bien arteko lotura estua (iraganean behintzat) kontuan hartuta. Horrela, Amueren bizitegi-garapena eta ingurune horren guztiaren hiri-berronartzea bultzatu ahal izango dira.

2.2.- Proposamenek generoaren arloan dituzten eraginak.

Proposamen horiek bat datoz V. epigrafean azaldutako esku-hartze helburu eta irizpide orokorrekin. Horrek esan nahi du proposamen horiek ondorio positiboak izango dituztela genero-ikuspegitik. Zehazkiago, oro har edo zehazki, modu osagarrian honako hauetan lagundu dute:

- * Udalerrian jardura ekonomikoak eta enplegua sortzea, Azpeitiko biztanleriaren era horretako eskaerei erantzunez, emakumeena barne.
- * Azpeitiko hiri-ingurunea dibertsifikatzea, konplexuago egitea eta aberastea Trukutxoko industria-garapena egungo bizitegi-bilbetik kanpo ezarri, haren berezko ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateraezina delako, baina Azpeitiko udalerrian bertan, bere hiri-bilbetik sarbide erraz eta eroso duen ingurune batean.

Horrela, proposatutako garapena lagungarria da Azpeitian hiri-ingurune bat sortzeko, multzoaren hurbiltasun- eta gertutasun-helburuekin bat datorrena. Trukutxok gaur egungo hiri-bilbearekiko duen etena ez da helburu horren kontrakoa emango zaion erabileraren berezitasuna kontuan hartuta eta, aldi berean, sarbidea du oinezkoentzako ibilbideetatik, bidegorritik eta autobus-geralekua duen garraio kolektibotik.



"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

- * Dauden mugikortasun jasagarriko sareak optimizatzen.
- * Lan produktiboak eta erreproduktiboak egitea, bai eta lan horiek egiten dituzten pertsonen denbora kudeatzea arrazionalizatzen ere. Industria-garapena Azpeitian ezartzeak horrelako eraginak izango ditu herrian bizi eta Trukutxora lanera doazen pertsonengan.
- * Lasaoko hiri-ingurunearen eta haren espazio publikoaren segurtasuna eta inklusibotasuna sustatzea, Trukutxoko industria-garapenak ingurune horren dinamika soziala eta funtzionala areagotzea ekarriko baitu, bertara joaten den eta bertan mugitzen den biztanle-kopurua handitzea ekarriko duen heinean.

3.- Plan Partzialaren proposamenak eta horien ebaluazioa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Azpeitiko Planaren neurrien eta aurreikuspenen ikuspegitik.

Aipatutako Berdintasunerako Planaren neurri eta aurreikuspenei dagokienez, honako hauek behar bezalako arreta merezi dute une honetan:

- A.- Plan Partziala genero-ikuspegitik ebaluatzen den heinean, aipatutako Berdintasunerako Planaren horri buruz ezarritako aurreikuspenak betetzen dira.
- B.- Plan Partzialean planteatutako proposamenek hirigintza multifuntzionala sustatzea ekarriko dute Azpeitiko hiri-ingurunearen eta dauden erabileren testuinguru konplexuan eta/edo bertan ezarri beharrekoan.

Horrela, Trukutxoko industria-garapenak udalerriko jarduera ekonomikoen eta enplegu-jardueren eskaerei erantzuten laguntzen du honako baldintza hauen arabera: bizitegitarako hiri-bilbetik kanpo, horrekin bateraezinak diren erabilerak direlako; hiri-bilbe horretatik gertu. Horrela, garapen-mota horrekin, hiri-ingurune bat sustatzen da, multzoaren gertutasun- eta hurbiltasun-helburuekin bat datorrena. Trukutxok egungo hiri-bilbearekin duen etena ez da helburu horren kontrakoa, emango zaion erabileraren berezitasuna kontuan hartuta.

Gainera, proposamen horiek bat datoz irisgarritasun unibertsalaren eta espazioaren diseinu unibertsalaren eta/edo pertsona guztiek erabiltzeko espazioaren diseinuaren helburuarekin bat datozen espazioen sorkuntzaren arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako aurreikuspenekin.

Gainera, kokapenak sarbidea du Urola bailarako oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidetik, eta oso hurbil du autobus-geraleku bat; aldi berean, harrera eskaintzen du, hala badagokio, Azkoitia eta Zumaia artean trenbide-sare bat ezartzeko, Trukutxo ondoan geltoki bat izan dezakeena.

"31. TRUKUTXO" EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.3. GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.



Testuinguru horretan, Plan Partzialaren proposamenak gauzatzeko sustatu beharreko eraikuntza-proiektuak eta urbanizazio-lanen proiektuak egokitu egin beharko dira arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako hirigintza- eta arkitektura-oztopoak kentzeko edo ez egoteko aurreikuspen arautzaileetara.

- C.- Herritarrek parte hartzeko prozesuarekin eta emakumeek prozesu horretan esku hartzearekin zerikusia duten neurriak Udalak zehaztuko ditu, horretarako testuinguru egokian. Hori zehaztea ez da Plan Partzialaren berariazko zereginetako bat.

VII.- ONDORIOAK.

Aurreko VI. epigrafean azaldutako gogoetek bide ematen dute ondorioztatzeko Plan Partzialaren proposamenak bat datozela genero-ikuspegiarekin. Nolanahi ere, eta adierazitakoaren arabera, honako hau planteatzen da:

- 1.- Plan Partzialaren proposamenak egikaritzeko Plan Partzialaren garapenean sustatu beharreko urbanizazio-proiektuaren genero-ikuspegitik ebaluatzea. Proiektu horiek V. epigrafean ("2.1.D" atala) adierazitako helburuetara, bai eta antolatutako eta urbanizatu beharreko espazio publikoan genero-ikuspegia txertatzeko egokitzen jotzen den beste edozein helburutara ere egokitzen diren aztertzea.
- 2.- Plan Partzialarekin lotuta sustatu beharreko herritarren partaidetza-prozesuari eta emakumeek prozesu horretan esku-hartzeari dagokionez, Udalak horretarako testuinguru egokian erabakitakoa beteko da.

Donostian, 2024ko maiatzean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

1.4 Dokumentua.
HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA.



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

AURKIBIDEA

- I.- Dokumentu honen xedea.
- II.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egiteko esparru orokorra. Metodologia.
- III.- Plan Partziala eta haren proposamenak.
- IV.- Azpeitiko egoera sozioekonomiko eta soziolinguistiko orokorra.
- V.- Plan Partziala hizkuntza-ebaluazioko salbuespen-kasuren batean dagoen ala ez aztertzea.
- VI.- Plan Partzialaren hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.
- VII.- Ondorioak.



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko Legeko (2/2016 Legea) 7.7 artikuluan eta 179/2019 Dekretuan (49. art) udalerrien egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioa izan dezaketen eragina ebaluatu behar da, eta ebaluazio horretatik eratorri eta egokitzen jotako neurriak proposatu behar dira.

Zehatzago esanda, 179/2019 Dekretuko 50. artikuluan adierazitakoaren arabera, Plan Partzialek ebaluazio hori egin behar dute, euskararen erabilera onorioak dituztenean.

Era berean, ebaluazio hori 179/2019 Dekretuan ezarritako aurreikuspenetara egokitu behar da, II. epigrafean azaldutakoetara.

Ebaluazio hori aurreikuspen horien arabera egitea da dokumentu honen xedea.

II.- HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA. METODOLOGIA

Esparru hori 2/2016 Legeak eta 179/2019 Dekretuak osatzen dute. Eta, zehazki, dekretu horretan ezarritakoari erreparatuta, dokumentu honen xede diren zereginak honako irizpide metodologiko hauei egokitu behar zaizkie:

- * Plan Partzialaren ebaluaziotik salbuetsitako kasuren batean dagoen edo egon daitekeen aztertzea (179/2019 Dekretuko 51. artikulua).
- * Hizkuntza-azterketaren irismena zehaztea (179/2019 Dekretuko 53. artikulua), baldin eta aurreko azterketatik ondorioztatzen bada Plan Partziala ez dagoela ebaluaziotik salbuetsita.
- * Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea (179/2019 Dekretuaren 54. artikulua), baldin eta irismenaren aurreko azterketatik ondorioztatzen bada Plan Partzialak eta haren proposamenek eragin linguistiko nabarmenak izan ditzaketela.

Osagarri gisa, eta informatzeko soilik, aurreko aurreikuspenak honako aurreikuspen hauekin osatzen dira; alde batetik, Plan Partzialaren proposamenen azalpenari buruzkoekin (III. epigrafe), eta, bestetik, Azpeitiko egoera sozioekonomikoari eta soziolinguistikoari buruzko informazioaren eta datuen azalpenari buruzkoekin (IV).

III.- PLAN PARTZIALA ETA HAREN HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK.

Proposamen horiek eta horiei erantzuten dieten helburuak Plan Partzialean bertan azaldutakoak dira. Hona hemen horietako batzuk, laburbilduta:

Plan Partzialaren helburua da, indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorra garatuz, “31. Truktxo” eremuaren antolamendu xehatua edo xehetasunezkoa zehaztea, erabilera industrialetarako erabilera nagusiaren arabera.



**“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.**

- * Honako hauek dira xede horrekin planteatutako proposamenetako batzuk:
- * Bi partzela industrial antolatzea (b.10.1 eta b.10.2), 186.874 m²-ko azalera osatzen dutenak, sestra gainera 56.691,75 m² (s)-ko eraikigarritasunarekin.
- Partzela industrial hori honako zuzkidura publiko hauekin osatuko da:
 - . Hiriko espazio libreak: 34.260 m².
 - . Ibai-ibilguak: 20.820 m².
 - . Oinezkoentzako-bizikletentzako bide-sarea: 1.460 m².
 - . Trenbide Sarea: 1.540 m².
 - . Bide-sarea (ibilgailuak-motordunak): 16.567 m².

IV. AZPEITIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKO ETA SOZIOLINGUISTIKO OROKORRA.

1.- Azpeitiko biztanleria.

EUSTATen datuen arabera, Azpeitiko biztanleriaren egoera eta bilakaera ondorengo tauletan ikus daiteke.

**1. TAULA.
BIZTANLERIAREN BILAKERA. EGUNGO EGOERA. ADINA ETA SEXUA.**

SEXUA	ADINA	URTEA					
		2010		2015		2023	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	0 – 19	1433	% 20,36	1532	% 20,99	1514	% 19,96
	20 – 64	4297	% 61,04	4221	% 57,82	4272	% 56,32
	>= 65	1310	% 18,61	1547	% 21,19	1799	% 23,72
	Guztira	7040	% 100,00	7300	% 100,00	7585	% 100,00
Gizonak	0 – 19	1499	% 20,80	1661	% 22,08	1804	% 23,32
	20 – 64	4576	% 63,51	4504	% 59,88	4434	% 57,32
	>= 65	1130	% 15,68	1357	% 18,04	1497	% 19,35
	Guztira	7205	% 100,00	7522	% 100,00	7735	% 100,00
Guztira	0 – 19	2932	% 20,58	3193	% 21,54	3318	% 21,66
	20 – 64	8873	% 62,29	8725	% 58,87	8706	% 56,83
	>= 65	2440	% 17,13	2904	% 19,59	3296	% 21,51
	Guztira	14245	% 100,00	14822	% 100,00	15320	% 100,00
Emakumeak. Guztira	---	7040	% 49,42	7300	% 49,25	7585	% 49,51
Gizonak. Guztira	---	7205	% 50,58	7522	% 50,75	7735	% 50,49
GUZTIRA	---	14245	% 100,00	14822	% 100,00	15320	% 100,00

Taulako datuak lortu diren iturria: EUSTAT.

**2. TAULA.
BIZTANLERIA, JAIOLEKUAREN ETA ALDIAREN ARABERA (%).**

JAIOLEKUA	2010		2015		2023	
Araba	48	% 0,34	47	% 0,32	45	% 0,29
Bizkaia	166	% 1,17	176	% 1,19	191	% 1,25
Gipuzkoa	12235	% 85,89	12558	% 84,73	12635	% 82,47
CAPV guztira	12449	% 87,39	12781	% 86,23	12871	% 84,01
Beste probintzia batzuk	914	% 6,42	899	% 6,07	847	% 5,53
Atzerria	882	% 6,19	1142	% 7,70	1602	% 10,46
GUZTIRA	14245	% 100,00	14822	% 100,00	15320	% 100,00

Iturria: EUSTAT.



**“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.**

Taula horietan azaldutako datuek honako gogoeta hauek egiteko bidea ematen dute:

- * Azpeitiko biztanleria, oro har, egonkortuta dago, baina igoera txiki batzuekin.
- * Biztanleriaren jaiolekua kontuan hartuta:
 - Jaiolekua EAEn eta, zehazkiago, Gipuzkoan duen biztanleria % 83,03koa da (2022), 2010ekoa eta 2015ekoa baino zertxobait txikiagoa.
 - Puntualki murrizten da jaiolekua beste probintzia batzuetan duen biztanleriaren presentzia (% 0,81, 2010. eta 2022. urteen artean).
 - Puntualki handitzen da jaiolekua atzerrian duen biztanleriaren presentzia (% 3,61, 2010. eta 2022. urteen artean).
- * Adinari dagokionez, biztanleria nabarmen egonkortuta dago 1. taulan azaldutako urkiletan. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 65 urtetik gorako pertsonen presentziak gora egin duela (% 4,53, 2010. eta 2022. urteen artean).
- * Sexuari dagokionez, biztanleria nabarmen egonkortuta dago aztertutako aldiaren, eta gizonen presentzia handiagoa da aldi horretan.

2.- Azpeitiko egoera soziolinguistikoa.

2.1.- Euskararen ezagutza.

- * Egungo egoera orokorra eta haren bilakaera taula honetan ikus daiteke:

**3. TAULA.
EUSKARAREN EZAGUTZA.
(2 urte edo gehiagoko pertsonak).**

EZAGUTZA - MAILA	2011		2016		2021	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskaldunak	11723	% 83,65	12057	% 83,69	12510	% 82,95
Ia-euskaldunak	1119	% 7,98	976	% 6,77	1194	% 7,92
Erdaldunak	1173	% 8,37	1374	% 9,54	1377	% 9,13
Guztira	14015	% 100,00	14407	% 100,00	15081	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

- * Aztertutako aldiaren detektatutako joera batzuk, taula horretako datuetatik ateratakoak, honako hauek dira:
 - Euskaldunen kopurua eta ehunekoa pixkanaka eta pixka bat murriztu dira. Horiek horrela, 2011. eta 2021. urteen artean, % 0,7 murriztu da.
 - Erdaldunen kopurua eta ehunekoa pixka bat igo dira. 2011. eta 2021. urteen artean, % 0,76 igo da.



**“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.**

2.2.- Euskararen erabilera etxean.

- * Egungo egoera orokorra eta haren bilakaera taula honetan ikus daiteke:

**4. TAULA
EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN
(2 urte edo gehiagoko pertsonak).**

HIZKUNTZA	BIZTANLERIA	2006		2011		2016	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskara	Guztira	8973	% 64,96	9915	% 68,19	10385	% 70,08
	Gizonak	4465	% 32,32	4982	% 34,26	5205	% 35,13
	Emakumeak	4508	% 32,63	4933	% 33,93	5180	% 34,96
Gaztelania	Guztira	2630	% 19,04	3262	% 22,43	2900	% 19,57
	Gizonak	1363	% 9,87	1655	% 11,38	1462	% 9,87
	Emakumeak	1267	% 9,17	1607	% 11,05	1438	% 9,70
Aurreko biak	Guztira	2149	% 15,56	1133	% 7,79	1084	% 7,32
	Gizonak	1085	% 7,85	592	% 4,07	562	% 3,79
	Emakumeak	1064	% 7,70	541	% 3,72	522	% 3,52
Beste bat	Guztira	62	% 0,45	230	% 1,58	449	% 3,03
	Gizonak	30	% 0,22	133	% 0,91	257	% 1,73
	Emakumeak	32	% 0,23	97	% 0,67	192	% 1,30
GUZTIRA	Guztira	13814	% 100,00	14540	% 100,00	14818	% 100,00
	Gizonak	6943	% 50,26	7362	% 50,63	7486	% 50,52
	Emakumeak	6871	% 49,74	7178	% 49,37	7332	% 49,48

Iturria: EUSTAT.

- * Aurreko taulako datuen ondoriozko alderdi batzuk honako hauek dira:
- Euskara etxean erabiltzen dutenen ehunekoa handia da (% 70,08, 2016an), baina euskara dakiten ehunekoa baino askoz txikiagoa.
 - Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du apur bat 2006tik 2016ra.

3.5.- Beste arazo batzuk.

179/2019 Dekretuan (51. art.) adierazitakoa kontuan hartuta, euskararen “arnasguneak” *eremu geografiko eta soziofuntzionalak dira, zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.*

Euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa izateari buruzko baldintza betetzen du Azpeitiak. Baina ez, ordea, gizarte-harremanetan euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra izateari buruzkoa, etxean % 70,08k erabiltzen duela kontuan hartzen bada (2016).

V.- PLAN PARTZIALA HIZKUNTZA-EBALUAZIOKO SALBUESPEN-KASUREN BATEAN DAGOEN ALA EZ AZTERTZEA.

179/2019 Dekretuan (51. art.) ezarritakoaren arabera, ez da hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar jarraian azaltzen diren kasuetan, honako gogoeta hauek justifikatzen dituztenetan:



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

1.- Funtsezkoak ez diren aldaketak plan edo proiektuetan.

Plan Partzialak 2013ko Plan Orokorraren proposamenak garatuko ditu eta, horretarako, eraginpeko eremuaren antolamendu xehatuaren araubidea zehaztuko du (Trukutxo).

Ikuspegi horretatik begiratuta, ezin da esan indarreko hirigintza-plangintzaren inolako aldaketa baten aurrean gaudenik.

2.- Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.

Adierazitakoaren arabera, hizkuntza-ebaluazioaren faseetako bat hizkuntza-azterlanaren irismena zehazteari dagokio (179/2019 Dekretuko 53. artikulua).

Plan Partzialaren proposamenek hizkuntza-eragin nabarmenik izan dezaketen edo ez ebaluatzea du helburu

Horregatik, arrazoizkoa da ebaluazio hori egitea, gutxienez aipatutako fasera arte, Plan Partzialaren hizkuntza-eraginaren irismena zehazteko.

3.- Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuetan.

Salbuespen-kasu hori ez da aplikatzekoa aztertzen ari garen kasuan honako bi arrazoi hauengatik.

Batetik, sustatutako dokumentua hirigintza-plan bat da, eta ez proiektu bat. Bestetik, indarrean dagoen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari ez zaio hizkuntza-ebaluaziorik egin.

VI.- PLAN PARTZIALAREN HIZKUNTZA-AZTERLANAREN IRISMENA ZEHAZTEA.

1.- Galdetegia.

1.1.- Eraginak, udalerriko biztanleria-egoiliarrean edo egonkorrean.

Plan Partzialak ez du bizitegi-garapenik aurreikusten. Hori dela eta, esan daiteke haren proposamenek, hasiera batean, ez dutela ekarriko udalerriko biztanleria egoiliar edo egonkorren gehikuntzarik.

1.2.- Eraginak bisitarien kopuruan.

Plan Partzialak jarduera ekonomiko berriak ezartzea eta, horrekin batera, enplegua sortzea aurreikusten du. Hori dela eta, esan daiteke haien proposamenek udalerrira lan-arrazoiengatik etortzen diren pertsonen kopurua handitzea eragingo dutela.

Horri dagokionez, 250 lanpostu sortuko direla kalkulatu da eta horien % 60 (150) udalerrian bizi direnak izango direla, eta % 40 (100) bisitariak.



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

1.3.- Bestelako eraginak, udalerriaren egoera soziolinguistikoan.

Ez da uste hirigintza-proposamenek beste inolako eraginik izan dezaketarik Azpeitiko egoera soziolinguistikoan.

2.- Hizkuntza-eraginaren irismena zehaztea.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako arloak zehaztutako parametroen arabera egindako hizkuntza-azterlanaren irismenaren analisiak ondorengo tauletan azaltzen den emaitza ematen du.

“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA	
Biztanleen kopurua gaur egun	14818
Euskaldunak gaur egun kopurutan	12401
Euskaldunak gaur egun %	% 83,69
Biztanle/bisitari berrien kopurua	215

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN	KOPURUTAN
Araba	% 0,32
Bizkaia	% 1,19
Gipuzkoa	% 84,47
Estatuko gainontzeko lurraldeak	% 6,05
Atzerrikoak	% 7,98
DENETARA	% 100

EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatuko gainontzeko lurraldeak	Atzerrikoak
Euskaldunak %	% 28,54	% 36,61	% 57,37	% 5,00	% 1,00
Besteak %	% 71,46	% 63,39	% 42,63	% 95,00	% 99,00
Euskaldunak	0	0	48	0	0
Besteak	0	1	36	6	8

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA		
Biztanle/bisitari berrien kopurua	Etorriko diren erdaldunak	Etorriko diren Euskaldunak %
100	51	49

EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA KONPARAKETA					
Biztanle/bisitari berriak + ohikoak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak %	Euskaldunen % gaur egun	EPI %	EPI
14918	12450	% 83,46	% 83,69	-% 0,23	-0,23

“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

ONDORIOAK	
Guztira	14818
Euskaldunak - Guztira %	83,69
Ama-hizkuntza euskara - Guztira %	74,23
Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira %	72,08
Euskara Zerbitzua	BAI
ESEP	BAI
Faktorea biztanle kopurua	2,00
Faktorea Euskaldunak	5,00
Faktorea Lehen hizkuntza	5,00
Faktorea Etxeko hizkuntza	5,00
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	0,00
Hauskortasun indizea	8,67
Hiren eraginaren balioa	1,00
Euskararen proiektzio indizea	-0,23
Bilakaera indizea	0,77
TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA	HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA EZ



“31. TRUKUTXO” EREMUKO PLAN PARTZIALA
1.4. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA DOK.

VII.- ONDORIOAK.

Aurreko epigrafean azaldutakoaren arabera, Plan Partzialak ez du eraginik izango Azpeitiko eta eraginpeko hiri-inguruneke egoera soziolinguistikokan, ez eta euskararen egoeran ere, hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlan bat egitea eta eragin horiek prebenitzeko eta zuzentzeko neurriekin osatzea justifikatzen duenik.

Donostian, 2024ko maiatzean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo



"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



3. Dokumentua
EGIKARITZAPENAREN ANTOLAMENDUKO ETA KUDEAKETAKO
JARRAIBIDEAK

SUSTATZAILEA





AURKIBIDEA

Or.

I.-	Dokumentu honen xedea.....	1
II.-	Hirigintza-antolamenduko proposamenak eta, egikaritzearen ondorioetarako, dagokion jarduketa-modalitatearekin duten lotura.....	1
III.-	Hirigintza-eraikigarritasunaren esleipena.....	2
IV.-	Aurreikusitako obrak eta urbanizazio-kargak proiektatu, egikaritu eta ordaintzea	3
V.-	Zuzkidura publikoko lurren lagapena.....	3
VI.-	Mugatutako jarduketa integratuko eremuan planteatutako antolamendua egikaritzeko programazioa.....	3



I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA

Dokumentu honen xedea Plan Partzial honetan bertan proposatutako hirigintza-antolamenduaren antolaketa- eta kudeaketa-jarraibideak zehaztea da eta, zehazki, honako kontu hauekin zerikusia dutenak:

- * Hirigintza-antolamenduko proposamenek jarduketa-modalitatearekin duten lotura egikaritzearen xedeetarako.
- * Hirigintza-eraikigarritasunaren esleipena.
- * Urbanizazio-kargak eta horien ordainketa- eta egikaritze-betebeharren banaketa.
- * Egikaritzearen programazioa.

Hurrengo epigrafeetan, gai horiekin lotutako esku-hartze jarraibideak azaltzen dira.

II.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUKO PROPOSAMENAK ETA JARDUKETA-MODALITATEAREKIN DUTEN LOTURA EGIKARITZEAREN XEDEETARAKO.

Indarreko hirigintza-legerian ezarritako irizpideen arabera, sektorean jarduketa-eremu integratu bakarria identifikatzen da, AAI 1/31 izenekoa.

II.4 planoan irudikatu den bezala, bat dator sektore osoarekin, sistema orokorrak barne, eta dagokion Hirigintzako Jarduketa Programaren (aurrerantzean, HJP) xede izango da

Egoera horretan, honako hau zehaztu behar da:

- Administrazio publikoari lagako zaizkio gaur egun sektorerik gabe dauden lurzoru guztiak (ikus I.3 planoan), zuzkidura publikoetarako kalifikazio xehatua eman zaienak (e.10, e.20, e.30, f.10, f.20 eta h.10 tipologietako partzelak, Plan Partzialak proposatutako antolamenduaren ondoriozkoak) eta, horrela, lehendik zegoen lurzoru publikoen zuzkidura osatuko da (jabari publiko hidraulikoa, trenbidearen jabaria, bideak, etab.).
- Egindako obrak finkatu egingo dira eta, bereziki, bide, trenbide eta obra hidraulikoen arloan egindakoak, GI-631 errepideko biribilgunea, Anardirako sarbide berria, trenbidearen trazaduraren zati bat estaltzea, hormak eta harri-lubetak, eta Urola gaineko zubia barne. Obra horiek, eginda daudenez, ez dira sartzen jarduketa integratuko eremuaren egungo urbanizazio-kargen zenbatespenean (ezta eremu horretan mugatzen den egikaritze-unitatearenean ere).



- Plana egikaritzeko orduan dagozkien eskubideak esleitzeko, ez dira kontuan hartuko dagoeneko egikarituta dauden eta titulartasun publikoa duten sistema orokorreko dagozkien lurzorua, ez eta bere garaian bide publikoari zegozkionak eta hala izateari utzi diotenak. Gainerako lursailak jarduketa integratuko eremuari (eta bertan mugatzen den egikaritze-unitateari) gehitutako lurzorutzat hartuko dira, hirigintza-eskubideak eta -kargak banatzeko xedeetarako, indarreko hirigintza-legeriarekin bat etorritik.

Plan honen Memorian deskribatu den bezala, urbanizazioaren egikaritzea proposatutako jarduketa integratuaren eremura mugatzen da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera, jarduketa integratuko eremu batean esku hartzeko, antolamendu xehatua zehazteaz gain, nahitaezkoa da. Lehen aurreratu den bezala, Hirigintzako Jarduketa Programa bat izapidetzea, jarduketa-sistema zehaztea ere lotuta duena, eta Truktxo eremua egikaritzeko antolamendua eta kudeaketa zehaztea. Aurrekoa alde batera utzita, gai horri buruzko jarraibide batzuk ezarri dira hemen.

Horrela, lehenik eta behin adierazten da eremuaren sustapenerako ekimena Plan Partzial hau idazteko beharrezkoa den ekimen pribatua dela, bai eta dagokion Hirigintzako Jarduketa Programa eta eremua kudeatzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren gainerako dokumentuak ere.

Hirigintzako Jarduketa Programa horrek zehaztuko ditu haren xede den eremuan planteatutako antolamendu-proposamenak egikaritzeko baldintzak, honako hauei buruzkoak barne: egikaritze-unitateak mugatzea; jarduketa-sistema zehaztea; urbanizazio-obren proiektzioa eta egikaritzea (urbanizazio-aurreproiektu baten berezko irismenarekin); aurreikusitako obrak eta jarduketak egikaritzeko eta ordaintzeko erantzukizunak. A priori, egikaritze-unitate bakarra mugatzea eta hitzarmen-sistema hautatzea aurreikusten da.

III.- HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN ESLEIPENA.

Eraikigarritasun horren esleipena, nolabizi ere, indarreko hirigintza-legerian ezarritako irizpideetara egokitu behar da eta, haren garapenean, jarduketa integratuko eremu horretan sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programa mugatzen duen egikaritze-unitatean egin eta onartuko den berdinbanaketa-proiektuak zehazten dituenetara.

Irizpide horiekin bat etorritik, aurreikusitako eraikigarritasunaren % 85 eremu horretako lursailen jabeek esleitu zaie, eta gainerako % 15, urbanizazio-kargarik gabe, Udalari, hirigintza-jarduketak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza gisa.

Proposatutako koefizienteak, proiektu honetako "2. Hirigintza Arauak" y "4.1. Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa" dokumentuetan azaldutakoak dira, eta bat datoz indarrean dagoen Azpeitiko HAPON ezarritakoekin. Koefiziente horiek sustatu beharreko Birpartzelazio Proiektuek aldatu edo eguneratu ahal izango dituzte.



IV.- AURREIKUSITAKO URBANIZAZIO-OBRAK ETA KARGAK PROIEKTATU, EGIKARITU ETA ORDAINTZEA.

Jarduketa integratuko eremuan aurreikusitako urbanizazio-obren proiektzioa eta egikaritzea, eta horien ondoriozko urbanizazio-kargen ordainketa, indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera, bertan sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programan zehazten diren irizpideetara egokituko dira, bai eta programa garatzeko egin beharreko proiektuetara ere (urbanizazio- eta berdinbanaketa-obren proiektuak).

Jarduketari dagozkio tokiko sistemen eta eremua garatzeko funtzionalki beharrezkoak diren elementu edo azpiegituren urbanizazio-kargak. Urbanizazioaren premia edo komenigarritasuna ekonomia-jarduerak ezartzeko lurzorua prestatzeko eremuan proposatutako garapenak duen interesaren arabera justifikatzen da.

Nolanahi ere, zehaztu behar da, Plan Partzialaren memorian deskribatzen den bezala, aztergai dugun kasuan, urbanizazioaren zatirik handiena egikarituta eta finkatuta dagoela.

Testuinguru horretan, "AAI.1/31" eremuan aurreikusitako urbanizazio-obrak egikaritzea eta ordaintzea eremu horretan aurreikusitako hirigintza-garapenaren urbanizazio-kargatzat hartuko da. Urbanizazio-karga hori eremuan aurreikusitako eraikigarritasunaren % 85aren esleipendunek ordainduko dute.

V.- ZUZKIDURA PUBLIKOKO LURREN LAGAPENA.

Plan Partzialak aipatutako jarduketa integratuko eremuan zuzkidura publikotara bideratutako lursailak, ondorengo salbuespenekin, Azpeitiko Udalarik lagako zaizkio, behar bezala urbanizatuta, bertan mugatzen den egikaritze-unitatean sustatuko den birpartzelazio-proiektuaren esparruan.

Hala ere, gai bakoitzean eskumena duen administrazioari dagozkio errepideetarako (GI-631) edo beste sistema orokor batzuetarako lurzorurak.

VI.- MUGATUTAKO JARDUKETA INTEGRATUKO EREMUAN PLANTEATUTAKO ANTOLAMENDUAREN EGIKARITZEAREN PROGRAMAZIOA.

Antolamendu hori egikaritzea planteatzen da, besteak beste, honako programazio-irizpide hauen arabera:

- * Hirigintzako Jarduketa Programa landu eta onartzea: 8 hilabeteko epean, proiektu hau onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.



- * Mugatzen den egikaritze-unitatean sustatu beharreko berdinbanaketa- eta urbanizazio-proiektuak egitea eta onartzea, aipatutako Hirigintzako Jarduketa Programak horretarako ezartzen dituen epeetan. A priori, sektore osoa etapa bakarrean urbanizatzea aurreikusten da.
- * Eraikuntza- eta egikaritze-proiektuak egitea: Hirigintzako Jarduketa Programak horretarako ezartzen duen eta/edo dituen epean eta/edo epeetan. A priori, eraikina zortzi urteko epean ezartzea aurreikusten da, baina eraikinaren ezarpena benetako premietara egokitu ahal izango da. Lehen erabilerako lizentziak emateko, urbanizazioa egikarituta egotea eta partzelak funtzionamendu egokirako behar dituen zerbitzu guztiak izatea eskatuko da. "b.10.1" eta "b.10.2" partzela industrialak eraikitzeke ekimena partzela bakoitzaren esleipendunari dagokio.

Donostian, 2025eko otsailean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo

"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



4. dokumentua
AZTERKETA EKONOMIKOA

SUSTATZAILEA





"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



4.1. dokumentua
BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN AZTERLANA.



AURKIBIDEA

I.-	Dokumentu honen xedea.	1
II.-	Dokumentu honetan jasotako ebaluazio ekonomikoaren esparru orokorra.	1
III.-	Erabileren haztapen-koefizienteak.	1
IV.-	Planteatutako hirigintza-garapen berrien bideragarritasunaren azterketa.....	3
V.-	Urbanizazio-kargen ordainketaren erantzukizunak.	6



I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA

Dokumentu honen xedea da Plan honen hirigintza-proposamenen bideragarritasun ekonomikoa aztertzea eta bertan antolatutako irabazizko erabileren haztapen-koefizienteak zehaztea.

Azterketa hori horrelako dokumentu baten berezko zehaztasun-mailaren arabera egiten da, eta bere garapenean sustatu beharreko proiektuek hobetuko dute (Hirigintzako Jarduketa Programa, birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak, etab.).

II.- DOKUMENTU HONETAN JASOTAKO EBALUAZIO EKONOMIKOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

Esparru hori honako hauetan ezarritako aurreikuspenek osatzen dute:

- * Indarrean dauden eta dokumentu honen xede den azterketa ekonomikoan eragina duten lege-xedapen orokorrak, honako hauek barne:
 - Administrazio zentralak sustatu eta Autonomia Erkidego honetan indarrean daudenak:
 - Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategia, 2015eko urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren bidez (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua) onartua
 - Lurzoruaren Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).
 - Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu direnak eta indarrean daudenak:
 - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea), honako hauen ondoriozko aldatetekin: 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte-hartzea aldatzen duena (11/2008 Legea); Etxebizitzaren Legea, 2015eko ekainaren 18koa (3/2015 Legea); 2/2014 Legea, urriaren 2koa.
- * Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2013an behin betiko onartua, eta, bereziki, "C.1 Azterlan Ekonomikoa-Jarduketa Programa" dokumentua, Urola Kostako LPpean xedatutakoa garatzen duena.

Testuinguru horretan, eta bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan hau egiteko, lurzoru urbanizagarri sektorizatua da.

III.- ERABILEREN HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK.

1.- Sarrera.

Indarrean dagoen 2013ko Plan Orokorra erabileren haztapen-koefizienteak zehazten ditu.



Plan Partzial honen idazketa koefiziente horiek zehazteko esparru egokia da, Plan Orokorrean ezarritakoak egungo egoera ekonomiko-urbanistikora eta aztergai dugun kasura egokituz.

Hala ere, udalak erabaki du HAPOn definitutako koefizienteek indarrean jarraitzen dutela eta aplikatu beharrekoak direla esku artean dugun kasuan. Koefiziente horiek, zehazki, hirigintza-plangintzako dokumentu horretako "C.1 Azterlan Ekonomikoa-Jarduketa Programa" dokumentuan zehaztutakoak dira. Jarraian adierazten diren parametro ekonomikoei erantzuten diete.

ERABILEREN HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK.

ERABILERA ETA ARAUBIDE JURIDIKO-EKONOMIKOA	LURZORU URBANIZATUAREN ERAGIN-BALIOA -€/m ² (s)-	HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK
Etxebizitza		
Sustapen publikoko erregimen bereziko BOE	93,17	0,34
Sustapen pribatuko erregimen bereziko BOE	123,86	0,46
Erregimen orokorreko BOE	271,11	1,00
Erregimen bereziko erkidegoko - udaleko erregimen tasatuko babestua	564,80	2,08
Sustapen librea	675,00	2,49
Hirugarren sektorea	139,65	0,51
Industrialak	150,00	0,55
Ekipamendu pribatua	50,00	0,18
Aparkalekua – Eranskinak		
Etxebizitza babestuak.	96,00	0,35
Sustapen librekoak.	110,71	0,40

Industria-erabilerarako zehaztapen hori egiteko, honako parametro hauek erabili ziren HAPOn:

- Salmenta-prezioa: 900,00 €/m²(s).
 - Eraikuntza-kostua: 450,00 €/m²(s).
 - Lurzoruaren eragin-balioa:
- $$[900 \text{ €/m}^2(\text{s}): 1,50] - 450 \text{ €/m}^2(\text{s}) = 150,00 \text{ €/m}^2(\text{s}).$$

Hala, "AAI.1/31" jarduketa integratuko eremuaren ondoriozko sestra gaineko eraikigarritasun haztatua 31.180 m²(tp)-koa da, honako faktore hauek biderkatzearen ondoriozkoa:

- Hirigintza-eraikigarritasuna: 56.691,75 m²(s).
- Trukutxoko industria-erabileraren haztapen-koefizientea: 0,55

Nolanahi ere, koefizientearen doitasuna HJP eta dagozkion kudeaketa-proiektua izapidetzeko prozesuaren jarraitutasunean zehaztuko da.



IV.- PLANTEATUTAKO HIRIGINTZA-GARAPENAREN BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA.

1.- Jarduketa integratuko eremuaren urbanizazio-kargak eta horien kostu ekonomikoa.

Karga horiek, zehazki, "AAI.1/31" jarduketa integratuko eremuan aurreikusitakoak dira, dagoen egoeran, izan ere, Plan Partzialaren memorian deskribatzen den bezala, askotariko bide- eta trenbide-obrak eta obra hidraulikoak dagoeneko egikarituta daude.

Zerbitzu-azpiegiturekiko konexioak ere eginda daude.

Hala, ur-hornidura dago, hartunea ezkerrean duena, Danona parean, TZren eraikineraino; bi hartune bereizi daude, bata suteen aurkako sarerako eta bestea hornidura-sarerako.

Saneamenduari dagokionez, egikaritutako ur beltzen sarea ponpaketa-putzu batera doa. Putzu horretatik bulkada-kanalizazio bat ateratzen da, Urola ibaiaren gaineko zubiari atxikia, Danona parean, eta kolektoreko putzu batera isurtzen du ezkerrealdetik.

Drainatze-arazoa konpontzeko, euri-urak biltzeko bi sare egikaritu dira: batetik, eraikin eta pabiloien estalkietako urak biltzen dituztenak (ur garbiak) eta, bestetik, bideetako eta zabalgunetako urak biltzen dituztenak. Ur horiek koipeak eta hidrokarburoak dekantatzeko eta bereizteko bi instalaziotara eramaten dira. Plataforma bakoitzean bat dago eta ibaira isurtzen dute tratatutako euri-ura, hirugarren bat behar izatearen kalterik gabe.

Energia elektrikoari dagokionez, goi-tentsioko konexioa dago transformazio-zentroaren eraikinaren ondoan.

Halaber, gas-hornidura eta telekomunikazio-zerbitzuak ere badaude. Eta bideek argiteria publikoa dute.

Hori dela eta, dagoeneko egikarituta daude bideak eta horien zoladura eta eremuari zerbitzu ematen dioten zerbitzu-azpiegiturak, argiteria publikoa barne.

Hori guztia I.4 planoan dago deskribatuta.

Une honetan, eta Plan hau garatzeko sustatu beharreko proiektuetan (Urbanizatzeko Jarduketa Programa; urbanizazio-proiektua; berdinbanaketa-proiektua; eta abar) kontu horri buruz zehazten denaren kalterik gabe, egikaritzeko dauden urbanizazio-obren kostuak bat datoz honako hauekin:

- f.10.1 eta f.10.3 gisa identifikatutako espazio libreak urbanizatzea (f.10.2 eremuak urbanizazioa egikarituta du, Badiolegitiko HUAren pasabidera doan ibilbidearekin bat datorrena).
- Espazio libreetan zuhaitz gehigarriak jartzea.



- Urola ibaiaren eta Ugalditza erreken ertzetan ingurumena hobetzeko neurriak hartzea.
- Hala badagokio, zerbitzu-azpiegituren arloko hartune osagarriak egikaritzeko eskubidea.

Bestalde, drainatze jasagarriaren arloan neurriak sartzeko ahalegina egingo da, baina hori partzela industrialean egingo da, partzelaren izaera industrialaren ondoriozko mugekin, eta kontuan hartuko da dagozkion eraikuntza-proiektuetan eta urbanizazio-obra osagarrietan.

Hori dela eta, egin beharreko urbanizazio-obra berrien egikaritze materialerako, BEZik gabeko kontrata bidezko 279.650 euroko egikaritze-aurrekontua zenbatetsi da, ondorengo taulan ageri den banakatzearen arabera.

OBRA - JARDUKETA MOTA	KOSTU EKONOMIKOA -€-
Zuhaitzak, lorezaintza eta ingurumen-hobekuntza	175000
Zerbitzu-azpiegiturretako hartune osagarriak	50000
Segurtasuna eta osasuna. Kalitate-kontrola. Baliabideen kudeaketa.	10000
Guztira (egikaritze materiala)	235000
% 19 (Gastu orokorrak + Mozkin Industrialak).	44650
Egikaritzearen kontrata bidezko aurrekontua.	279650

Osagarri gisa, hirigintza-planak eta -proiektuak egitearen kostua 160.000 € ingurukoa izango dela kalkulatu da.

Ondorioz, 439.650 €-ko kostua du guztira.

2.- Azpeitiko Udaleri eta jabeen dagokien eraikigarritasun haztatua.

2.1.- Udaleriaren eraikigarritasun haztatua.

Udaleri legezko lagapen gisa dagokion eraikigarritasun haztatua eremuan ateratzen den guztizkoaren % 15 da:

$$31.180 \text{ m}^2(\text{tp}) \times \% 15 = 4.677 \text{ m}^2(\text{tp})$$

Eraikigarritasun hori bat dator eremuaren birpartzelazioan Udaleri esleitzea aurreikusten den "b.10.2" partzelan antolatutakoarekin.

2.2.- Jabeen dagokien eraikigarritasun haztatua.

"AAI.1/31" jarduketa integratuko eremuko lurren jabeen dagokien eraikigarritasun haztatua eremuko guztizkoaren % 85:

$$31.180 \text{ m}^2(\text{tp}) \times \% 85 = 27.030 \text{ m}^2(\text{tp})$$

Bat dator "b.10.1" partzelan antolatutakoarekin.



3.- Lurzoruaren balioa, urbanizazio-kargak kenduta.

Urbanizazio-kargen zenbatekoa kendu ondoren ateratzen den lurzoruaren eragin-balioa, jabeen dagokien eraikigarritasun haztatua erreferentziatzen hartuta, honako hau da:

- * Lurzoruaren eragin-balioa, gauzatu gabeko urbanizazio-kargen kostua kendu gabe:
 $27.030 \text{ m}^2(\text{tp}) \times 282 \text{ €/m}^2(\text{tp}) = 7.622.460 \text{ €}.$
- * Lurzoruaren eragin-balioa, gauzatu gabeko urbanizazio-kargen kostua kenduta:
 $7.622.460 \text{ €} - 439.650 \text{ €} = 7.182.810 \text{ €}.$

Balio horri egikaritutako urbanizazio-obren kostua kendu beharko litzaioke.

4.- Aurreko aurreikuspenetatik ateratako ondorioak.

Aurreko ataletan azaldutako faktoreak batera kontuan hartuta, Truktxoko eremuan planteatutako hirigintza-garapena bideragarria da egungo egoeran (sestra gainean aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasuna eta eraikigarritasun haztatua soilik kontuan hartuta).

V.- URBANIZAZIO-KARGEN ORDAINKETAREN ERANTZUKIZUNAK.

Urbanizazio-karga horiek guztiak "AAI.1/31" jarduketaren integratutako eremuan aurreikusitako hirigintza-garapenaren berezko kargak dira.

Horrekin bat etorritik, karga horien kostua aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasunaren titularrek ordaindu behar dute, hain zuzen ere, eraikigarritasun horren % 85aren titularrek, Udaltzari kargarik gabe planteatutako hirigintza-jarduketaren ondoriozko gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza gisa dagokion % 15 kenduta.

Donostian, 2025eko otsailean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo



"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



4.2. dokumentua
JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA.



AURKIBIDEA

Orrialdea

I.-	Dokumentuaren xedea	1
II.-	Planteatutako hirigintza-proposamenak eta horien baldintzatzaileak.....	1
III.-	Hirigintza-proposamenek ogasun publikoan dituzten eraginak eta horien jasangarritasun ekonomikoa aztertzea.	2
IV.-	Erabilera produktiboetara zuzendutako lurzoruen nahikotasuna eta egokitzapena.	5



I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Indarreko legerian (2015eko urriaren 30eko Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legeko "22.4" artikuluan; 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan; neurri urgenteei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 31. artikuluan) aurreikusitakoaren arabera, *urbanizazio berriko jarduketak edo urbanizazioa erreformatu edo berritzeko jarduketak eta zuzkidura-jarduketak antolatze*ko tresnek iraunkortasun ekonomikoko txosten bat edo memoria bat izan beharko dute.

Horrek, beste gauza batzuen artean, *mantentze-kostuak kuantifikatzea eskatzen du, antolamenduko tresnan aurreikusitako hiri-hazkunderari aurre egiteko behar diren zerbitzu publikoen prestazioa martxan jartzeagatik eta, aurreikusitako eraikuntza eta biztanleria potentzialaren arabera, tokiko zerga nagusien ondoriozko udaleko diru-sarrerak kalkulatzeko, jarduketak eragingo dituen eraikinak amaitu arte aurreikusten diren agertoki sozioekonomikoen arabera ebaluatuta.*

Beraz, memoria horrek bi helburu hauek ditu:

- * Batetik, hirigintza-garapena egikaritzeak Ogasun Publikoetan izan dezakeen eragin ekonomikoa aztertzea eta/edo haztatzea eta, horretarako, kontuan hartzen ditu honako hauei lotutako eraginak:
 - Proiektatutako zuzkidurak, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak egikaritzearen, ezartzearen eta mantentzearen eta zerbitzu horiek ematearen kostuak.
 - Kalkulatutako udalaren diru-sarrerak.
- * Bestetik, erabilera produktiboetara zuzendutako lurzoruen nahikotasuna eta egokitzapena aztertzea.

Testuinguru horretan eginda, dokumentu honen helburua da, aipatutako lege-baldintza betez, helburu horiei erantzuna ematea eta arazo horiek aztertzea.

II.- PLANTEATUTAKO HIRIGINTZA-PROPOSAMENAK ETA HORIEN BALDINTZATZAILEAK.

Honako hauek dira Plan Partzial honek planteatutako hirigintza-proposamenetako batzuk:

- * Bi partzela industrial antolatzea ("b.10.1" eta "b.10.2"), 186.574 m²-ko azalera osatzen dutenak, sestra gaineko 56.691,75 m² (s)-ko eraikigarritasunarekin.
- * Partzela industrial hori honako zuzkidura publiko hauekin osatuko da:
 - Hiriko espazio libreak: 34.240 m².
 - Ibai-ibilguak: 20.820 m².
 - Oinezkoentzako-bizikletentzako bide-sarea: 1.460 m².
 - Trenbide Sarea: 1.540 m².
 - Bide-sarea (ibilgailuak-motordunak): 16.867 m².



III.- HIRIGINTZA-PROPOSAMENEK OGASUNPUBLIKOAN DITUZTEN ERAGINAK ETA HORIEN JASANGARRITASUN EKONOMIKOA AZTERTZEA.

1. Aurreikusitako udaleko diru-sarreraren zenbatespena.

1.1.- Sarrera.

Aterako diren diru-sarrerak kalkulatu ahal izateko, ondoren aipatuko diren bi modalitateak bereiz daitezke, besteak beste.

Alde batetik, ondare-izaera edo antzekoa dutenak, une jakin batean oso-osorik ordaintzen direnak, ordainketa edo aplikazioa justifikatzen den heinean.

Izaera hori dute, besteak beste, honako hauei lotutako diru-sarrerek: Udalari dagokion eraikigarritasunaren balio ekonomikoak, komunitateak hirigintza-gainbalioetan duen partaidetza gisa (% 15), betebeharrak hori ekonomikoki betetzen den kasuetan; Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko Zergaren (EILZ) zenbatekoak; hirigintza-lizentziak emateagatik tasen zenbatekoa; Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Udal Jabari Publikoa Okupatzeagatik Tasak; eta abar.

Bestetik, sarrera arruntek edo ohiko sarrerek, haien ezarpenak eta ordainketak jakineko aldiei erantzuten dien heinean, gehienetan urte naturalarekin bat etorritik. Hori gertatu zen, besteak beste, honako hauekin: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarekin, Ibilgailuen gaineko, saneamendu-zerbitzuaren prestazioagatik edo hondakin-bilketagatik tasekin.

Diru-sarrera horien guztien artean, une honetan bigarren modalitateko diru-sarrerak soilik kontuan hartu eta balioetsiko dira, modu erreal eta eraginkorrean modu arrunt eta iraunkorrean planteatutako antolamenduaren ondoriozko zerbitzu publikoen mantentzea eta prestazioa bermatzeko diru-sarrerak diren heinean. Planteamendu orokor horren salbuespena 1.2 atalean aztertuko den lehen modalitateko diru-sarrerek eratuko dute.

Gainera, bigarren modalitate horretako diru-sarreretatik ez dira analisi honetan kontuan hartuko, besteak beste, telefonia mugikorreko enpresek jabari publikoa okupatzeagatik tasari lotutakoak, une honetan ezinezkoa delako horren kuantifikazio ekonomikoa egitea. Dena den, izaera horretako diru-sarrerek lehen aipaturiko hiri-zerbitzuen mantentzea bermatzeko lagunduko dute, arlo horretan ebaluatzen diren diru-sarrerek xede horietarako duten bermearen gainetik.

Aurrekoari gehitu behar zaio Trukutxo Lasaoko hiri-continuumean egoteak, Anardi eta Badiolegi artean, dagoen bide-sarearekin mugakide izanik, besteak beste, honako hauek berekin dituzten garapena eta egikaritzea inplikatzeko duela:

- * Hiri-ingurune horretan lehendik dauden azpiegitura, sare eta zerbitzu publiko orokorretan bermatzea.
- * Garraio publikoa (hiriarteko autobusa) izatea, egungo trazadura-ibilbidean baitago.



- * Azpiegitura, sare, zuzkidura eta zerbitzu publiko horiek mantentzeko gastuak minimizatzea, bai eta zerbitzu horiek ematekoak ere.
- * Azpiegitura, sare, zuzkidura eta zerbitzu publiko horien erabilera areagotzea eta arrazionalizatzea eta, horrekin, haien errendimendu ekonomikoa optimizatzea eta arrazionalizatzea.

1.2.- Sarrera zenbatetsiak.

A.- Ondarezko diru-sarrerak edo antzekoak.

- * Udalarari legezko lagapen gisa dagokion eraikigarritasunaren % 15eko balio ekonomikoa.

Une honetan 431.742 €-koa dela kalkulatu da.

- * Eraikuntzen, Instalazioen eta Lanen gaineko Zergari (EILZ) lotutako diru-sarrerak, proiektatutako eraikin industrialen egikaritze materialaren aurrekontuaren % 5. Diru-sarrera horiek eremuan eraikuntza egikaritu ahala sortuko dira.

B.- Diru-sarrera arruntak edo ohikoak.

a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ).

Zerga horren ondoriozko diru-sarrerak zenbatesteko, 858 katastro-zonako industria-garapenei dagokien OHZ hartuko da erreferentziazat. Zenbatekoa, batez besteko 1,5 €/ m² (s) industrialia izango da sestra gainean. OHZri lotutako diru-sarrerak honako hauek izango direla kalkulatu da:

$$56.691,75 \text{ m}^2(\text{s}) \times 2 \text{ €/m}^2(\text{s})/\text{urteko} = 113.384 \text{ €/urteko}.$$

b) Ibilgailuen gaineko Zerga (IZ).

Ez da uste zerga horri lotutako diru-sarrerarik izango denik.

c) Ur-horniduragatiko, saneamendu-zerbitzuaren prestazioagatiko eta zabor-bilketagatiko tasak.

Ur-horniduraren, estolderiaren eta hondakin-bilketaren tasen ondoriozko diru-sarrerek gai horiei lotutako sareen eta instalazioen mantentze-kostuak estaltzen dituztela uste da.

d) Ateratzen diren diru-sarrerak.

Aurreko ataletan azaldutako datu guztiak batera hartuta, 113.384 €/urteko diru-sarrerak kalkulatu dira.



2.- Ondoriozko udal-gastuen zenbatespena.

Azaldutakoari erreparatuta, une honetan kontuan hartu beharreko gastuak proiektatutako udal-zerbitzu publikoen egikaritzeari eta mantentzeari lotutakoak dira, planteatutako garapen berriari erantzuna eman ahal izateko. Proiektu honetan planteatutako hirigintza-proposamenei erreparatuta, honako hau adieraz daiteke:

A.- Proiektatutako lorategi-espazio libreen mantentze-kostuak:

Eremuan antolatutako berdegune edo lorategi-espazio libreen azalera, guztira, 34.865 m²-koa da.

Udalerrian horrelako espazio libre bat mantentzeko batez besteko parametro ekonomikoak erreferentziatzen hartuta, 1,50 €/m²/urteko mantentze-kostua kalkulatu da. Eta horrek 52.297,50 €/urteko kostua dakar.

C.- Bide-sarearen mantentze-kostua.

Bide-sarearen azalera, guztira, 18.327 m²-koa dela kalkulatu da.

16 €/m²/urteko mantentze-kostua kalkulatu da. Eta horrek 29.323 €/urteko kostua dakar.

D.- Zuhaitzak.

Gutxi gorabehera, 567 zuhaitz landatzea aurreikusten da.

Udalerrian zuhaitzak mantentzeko batez besteko parametro ekonomikoak erreferentziatzen hartuta, 10 €/zuhaitz/urteko batez besteko mantentze-kostua kalkulatu da. Eta horrek 5.670 €/urteko mantentze-kostua du.

E.- Argiteria publikoaren mantentze-kostuak.

Udalerrian argiteria mantentzeko batez besteko parametro ekonomikoak erreferentziatzen hartuta eta, zehazkiago, eremu industrial batean, 18.000 €/urteko mantentze-kostua kalkulatu da.

F.- Mantentze-kostu guztien zenbatespena.

Aurreko ataletan azaldutako datuen arabera, guztizko mantentze-kostua 105.291 €/urteko da.

3.- Ondorioak.

Emandako datuen arabera, diru-sarrerak eta gastu arrunt edo ohikoak 113.384 €/urteko eta 105.291 €/urteko direla kalkulatu da, hurrenez hurren.

Beraz, saldo hori positiboa da: 8.093 €/urteko. Beraz, planteatutako proposamenak ez dizkio eragingo udal ogasunari aurreikusitako diru-sarrerak gainditzen dituzten gastuak.



IV. ERABILERA PRODUKTIBOETARA ZUZENDUTAKO LURZORUAREN NAHIKOTASUNA ETA EGOKITZAPENA.

Proposamenak modu aktiboan eta positiboan erantzuten dio 2013ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen eta indarrean dagoen Jarduera Ekonomikoen Lurraldearen Arloko Planaren testuinguruan hautemandako eta zehaztutako ekoizpen-jardueretarako lurzoruen eskariari, EHLABek HAPO horri buruzko aldeko txostena eman zuen heinean.

Hori dela eta, esan behar da Plan Partzialak modu aktibo eta positiboan laguntzen duela erabilera produktiboetarako lurzoruen eskaintza nahikoa eta egokia izan dadin aipatutako eskaerari erantzuteko.

Testuinguru horretan esan behar da aurreikusitako industria-garapenak [56.691,75 m²(s)-ko eraikigarritasunarekin] udalerrian jarduera eta enplegua sortzen lagunduko duela.

Donostian, 2025eko otsailean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo



"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



5. dokumentua
EGIKARITZE-LABURPENA

SUSTATZAILEA





AURKIBIDEA

Orrialdea

I.-	Laburpen honen xedea.	1
II.-	Egikaritze-laburpenaren beharra. Edukia.	1
III.-	Egungo egoera. Indarrean dagoen hirigintza-araubidea. Planteatutako hirigintza-proposamenak.	2
IV.-	Planaren ondoriozko hirigintza-antolamenduaren aldaketak.	4
V.-	Proiektuaren ondoriozko afekzioak, indarrean dagoen hirigintza-antolamendua eta/edo egikaritze-prozesua etetearen arloan	4
VI.-	Dokumentazio grafikoa	5



I.- LABURPEN HONEN XEDEA.

Hau da laburpenaren xedea: Azpeitiko HAPOko "31 Trukutxo" Plan Partzialaren egikaritze-laburpena azaltzea eta ezagutzera ematea, alor horretan indarrean dauden xedapenetan eta, zehazki, II. epigrafean zehazten diren araututakoarekin bat etorriz.

Eraginpeko eremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzeko egin da hirigintza-dokumentu hau, bertan adierazitako baldintzetan eta irismenarekin.

II.- EGIKARITZE-LABURPENAREN BEHARRA. EDUKIA.

2015eko urriaren 30eko Lurzoruaren Legearen (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua) testu bateginaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, *hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko prozedurak, jendaurrean jarritako dokumentazioak honako hauek adierazten dituen laburpen exekutiboak ekarri behar dira:*

- a) *Proiektatutako antolamenduak indarrekoak aldatzen duen eremuen mugapena, eremu horien kokalekuaren planoak eta aldaketaren norainokoa.*
- b) *Dagokionean, dela egungo antolamendua, dela hirigintza egikaritzeko prozedura, dela hirigintzan esku hartzeko prozedurak eten diren eremuak eta etenaldiaren iraupena.*

Era berean, 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluan errepikatzen da agindu hori, eta osatu egiten du; izan ere, zenbait eremutan proiektatutako antolamenduak indarrean dagoen antolamendua aldatzen duenean, *egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko planoak edo tresnak txertatuko dira.*

Hurrengo IV. epigrafean, laburbilduta, "31 Trukutxo" eremuaren zatiak identifikatzeari eta mugatzeari buruzko alderdiak azaltzen dira. Zati horietan, egindako hirigintza-dokumentuan proposatutako hirigintza-antolamenduak indarrean dagoena aldatzen du.

Era berean, V. epigrafean, dokumentu horrek indarrean dagoen antolamendua eta/edo horren egikaritze-prozedurak bertan behera uzteari dagokionez dituen eraginak azaltzen dira, laburbilduta horiek ere.

Aldez aurretik, agindu hori behar bezala betetzeko, III.4 epigrafean laburbilduta azaltzen dira hirigintza-dokumentuaren helburuak.



III.- EGUNGO EGOERA. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ARAU BIDEA. PLANTEATUTAKO HIRIGINTZA-PROPOSAMENAK.

1.- "31 Trukutxo" eremuaren egungo egoera.

Eremuaren mugapena Azpeitiko indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritakoa da, 2013an behin betiko onartutakoa. Plan Partzial honetan adierazitakoaren arabera, bere azalera 259.786 m²-koa da. Industria-erabilerako zona globalak, sistema orokorrak alde batera utzita, 226.767 m² ditu.

Egiturazko antolamendua duen eremua da, baina antolamendu xehatua zehaztu gabe duena.

Hala ere, dagozkion baimenekin, hainbat bide- eta trenbide-obra eta obra hidrauliko egin dira, beste batzuen artean.

Eremuan lehendik zeuden urbanizazioa eta eraikinak, Anardi eta Badiologiko HUA Urolaren eskuinaldetik lotzen dituen eta aurretik egikarituta zegoen bide publikoa izan ezik, bat datoz 2009an Trukutxori dagokion Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Planaren Aldaketa behin betiko onartu ondoren egindako obrek.

2.- Indarreko hirigintza-araubidea.

2013ko Plan Orokorra eremuko lurra lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen ditu eta, batez ere, industria-erabilerarako erabiltzen ditu.

Haren garapenaren oinarritzko helburua hau da: Amue eremuko lurzoruaren kalifikazioa industrialetik bizitoki-erabilerakora aldatzearen ondorioz galdu den industria-lurzoruaren galera konpentsatzea. Horrek aukera ematen du bizitegirako hiri-bilbeari jarraipena emateko lbaider eta Urola arteko elkargunean, udalerriaren hirigunean eta, aldi berean, Trukutxoko industria-garapena aurreikusten da, Anardi eta Badiologi arteko Lasaoko hiri-continuum industrial osatuz.

Hori guztia, jabari publiko hidraulikoa, trenbide-jabaria eta bide-jabaria kontuan hartuta planteatzen da bi kasuetan (Trukutxo eta Amue).

Planteatutako hirigintza-garapen berriak erabilera industrialeko 56.691,75 m² (s) berri ezartzea ekarriko du.

Antolamendu xehatua zehazteko, dokumentu honen xede den Plan Partziala egitea eskatzen du.



3.- Plan Partzialaren proposamenak.

Plan Partzial honen helburua da eremuaren antolamendu xehatua zehaztea eta, aldi berean, bertan esku hartzeko eta eraikitzeko eta balioa emateko eta erabiltzeko behar diren parametroak zehaztea.

Honako hauek dira xede horrekin planteatutako proposamen garrantzitsuenetako batzuk:

- A.- Lehendik zeuden obra publikoak, urbanizazioa eta eraikuntza finkatuko dira, bat datozelako planteatzen diren hirigintza-antolamenduko eta hiri-birkalifikazioko helburuekin.
- B.- Tokiko espazio libreak antolatzea, guztira 34.260 m²-ko azalera dutenak.
- C.- Eremuaren urbanizazioa osatzeko, zuhaitzak zaindu eta landatuko dira antolatutako espazio libreetan, eta behar diren zerbitzu-hartuneak osatuko dira.
- D.- "AAI.1/31" jarduketa integratuko eremua mugatzea, sektore osoarekin bat datorrena.

Ondorengo taulan daude jasota planteatutako proposamen zehatz horiek.

ZONAKATZE XEHATUA. ONDORIOZKO AZPIZONEN AZALERA

KALIFIKAZIO XEHATUA	Azalera m ²	Azalera m ²
"B.10. Zona industrialia"		186.874
"b.10.1 Zona industrialia"	158.436	
"b.10.2 Zona industrialia"	28.138	
"e.10 Errepideak eta Hiri barruko Bideak"		16.567
"e.10.1" (S.O.)	13.129	
"e.10.2.1"	2.051	
"e.10.2.2"	1.155	
"e.10.2.3"	532	
"e.20.1 Ibilbide Berezien Sarea. Oinezkoak-bizikletak". (S.O.)		1.460
"e.30.1 Trenbide-sarea". (S.O.)		1.540
"f.10 Hiriko Espazio Libreak"		34.260
"f.10.1"	20.225	
"f.10.2"	11.585	
"f.10.3"	2.450	
"f.20.1 Espazio libre komunak" (S.O.).		478
"h.10 Ibai Ibilguak"		20.820
"h.10.1" (S.O.)	20.080	
"h.10.2" (S.O.)	740	
TRUKUTXO EREMUA GUZTIRA		259.786

(1). Bi kota desberdinetan dagoenez, eremu batzuk gainjarri egiten dira eta azpieren batura eremuaren azalera osoa baino handiagoa da.

IV.- PLANAREN ONDORIOZKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ALDAKETAK.

Plan Partzialaren proposamenek ez dute aldatzen 2013ko Plan Orokorrean ezarritako indarreko hirigintza-antolamendua, garatu egiten dute.

Hala, Plan Partziala Plan Orokorra egikaritzean sustatzen da, bertan ezarritako egiturazko antolamendua garatu eta osatzeko xedez, eremuaren antolamendu xehatua zehaztuz.

V.- PROIEKTUAREN ONDORIOZKO AFEKZIOAK INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA/EDO BERE EGIKARITZE-PROZESUA ETETEAREN ARLOAN.

Plan Partzialaren ondoriozko afekzioak eraginpeko eremuan indarrean dagoen hirigintza-antolamendua eteteari nahiz hura egikaritzeari dagokionez, estuki lotuta daude "31 Trukutxo" eremuaren antolamendu xehatua zehazteko helburuari. Kontu horri buruz planteatutako proposamenen arabera esan behar da hasierako onarpenak honako hauek ekarriko dituela, besteak beste:

- * Lizentziak emateari uztea, besteak beste, indarrean dagoen 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 85. artikuluan ezarritako kasuetan eta irismenarekin, Plan Partzialean mugatutako jarduketa integratuko eremuan ("AAI.1/31"), II.4 planoan eta hurrengo grafikoan (irudian zuriz) irudikatutakoan.



- * Lizentzien etete hori gehienez ere 1 urtekoa izango da, Plan Partzial honek hasierako onarpena jasotzen duenetik kontatzen hasita.



VI.- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA.

Aurreko epigrafeetan azaldutako aurreikuspenak aipatutako hirigintza-dokumentuaren planoetan jasota daude, eta une honetan ez dago horiek errepikatu beharrik.

Lizentzien etete horrek jarduketa integratuko eremuari eragiten dio, azaldutako baldintzetan.

Donostian, 2025eko otsailean

Sin: Santiago Peñalba

Iñigo Peñalba

Mikel Iriondo



"31 TRUKUTXO" HE-KO PLAN PARTZIALA
AZPEITIA
2025eko otsaila



6. dokumentua
PLANOAK

SUSTATZAILEA





AURKIBIDEA

Eskala

I. INFORMAZIO-PLANOAK


- 1.- Hirigintza-eremuaren kokapena (ortoargazki gainean). 1/ 5.000
- 2.- Eremuaren mugapena. Egungo egoera (topografiko gainean). 1/ 2.000
- 3.- Egungo partzelarioa. 1/ 2.000
- 4.- Hiri-azpiegituren eta -zerbitzuen sareak. Egungo egoera. 1/ 2.000
- 5.- Indarreko hirigintza-araubidea. Zonakatze orokorra 1/ 2.000

II.- PROIEKTUKO PLANOAK.


- 1.- Zonakatze xehatua 1/ 2.000
- 2.- Antolamenduaren definizio geometrikoa. Oinplanoa eta sekzioak. 1/ 2.000
- 3.- Hiri-zerbitzuen azpiegiturak: Ur-hornidurako, saneamenduko, energia elektrikoaren hornidurako, argiteria publikoko, gas-hornidurako eta telekomunikazioetako sareak. 1/ 2.000
- 4.- Hirigintza-egikaritzea. Jarduketa Integratuko Eremuaren mugapena. 1/ 2.000



"31. TRUKUTXO" HE. AU. "31. TRUKUTXO"



"31. TRUKUTXO" EREMUAREN PLAN PARTZIALA		PLAN PARCIAL DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"	
AZPEITIA		AZPEITIA	
2025ko OTSAILA		FEBRERO 2025	
<u>I. INFORMAZIO PLANOAK</u>		<u>I. PLANOS DE INFORMACIÓN</u>	
I.1 PLANOAK		PLANO I.1	
HIRIGINTZA-EREMUAREN EGOERA		SITUACIÓN DEL ÁMBITO URBANÍSTICO	
1:15.000 ESKALA		ESCALA 1:15.000	
EQUIPO REDACTOR		IDAZLE TALDEA	SUSTATZAILEA
			
SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto. INIGO PEÑALBA Arquitecto. MIKEL IRIONDO Abogado.			
		PROMOTOR	



"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

"31. TRUKUTXO" EREMUAREN
PLAN PARTZIALA

AZPEITIA
2025ko OTSAILA

PLAN PARCIAL
DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"

AZPEITIA
FEBRERO 2025

I. INFORMAZIO PLANOAK

I.2 PLANOAK

EREMUAREN MUGAKETA.
EGUNGO EGOERA

1:2.000 ESKALA


I. PLANOS DE INFORMACIÓN

PLANO I.2

DELIMITACIÓN DEL ÁMBITO.
SITUACIÓN ACTUAL

ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR






SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto.
IÑIGO PEÑALBA Arquitecto.
MIKEL IRIONDO Abogado.

IDAZLE TALDEA

SUSTATZAILA

PROMOTOR





"31. TRUKUTXO" HE. AU. "31. TRUKUTXO"

- JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA 1 DOMINIO PÚBLICO HIDRÁULICO (DPH)
GFA GI-631 ERREPIDEA 2 D.F.G. CARRETERA GI-631
ETS (TREN BIDE TRAZADURA) 3 ETS (TRAZADO FERROVIARIO)
AZPEITIAKO UDALA 4 5 6 AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA
HIERROS SERVANDO, S.L. 5 HIERROS SERVANDO, S.L.

"31. TRUKUTXO" EREMUA
PLAN PARTZIALA

PLAN PARCIAL
DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"

AZPEITIA

AZPEITIA

2025ko OTSAILA

FEBRERO 2025

I. INFORMAZIO PLANOAK

I. PLANOS DE INFORMACIÓN

I.3 PLANOAK

PLANO I.3

EGUNGO LURZATIAK

PARCELARIO ACTUAL

1:2.000 ESKALA

ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR


IDAZLE TALDEA

SUSTATZAILEA

PROMOTOR


SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto.
INIGO PEÑALBA Arquitecto.
MIKEL IRIONDO Abogado.






"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

B. INDUSTRIA-GUNEA INDUSTRIA-GUNEA B.10	B.10	B. ZONAS INDUSTRIALES ZONA INDUSTRIAL COMÚN	B.10
E. KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA ERREPIDE ETA HIRIKO BIDE NAGUSIAK (SO) E.10	E.10	E. SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES CARRETERAS Y VÍAS URBANAS PRINCIPALES (S.G.)	E.10
IBILBIDE BEREZIEN SAREA (BIZIKLETAK - OINEZKOAK) (SO) E.20	E.20	RED DE ITINERARIOS ESPECIALES (CICLISTA - PEATONAL) (S.G.)	E.20
TRENBIDE SAREA (SO) E.30	E.30	RED FERROVIARIA (S.G.)	E.30
H. AZALEKO UREN SISTEMA OROKORRA IBAI IBILGUAK (HIRI-INGURUNEA) H.10	H.10	H. SISTEMA GENERAL DE AGUAS SUPERFICIALES CAUCES FLUVIALES (MEDIO URBANO)	H.10



"31. TRUKUTXO" EREMUAREN PLAN PARTZIALA AZPEITIA 2025ko OTSAILA	PLAN PARCIAL DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO" AZPEITIA FEBRERO 2025
I. INFORMAZIO PLANOAK I.5 PLANOAK INDARREAN DAGOEN ERREGIMEN URBANISTIKOA. ZONAKATZE GLOBALA 1:2.000 ESKALA	I. PLANOS DE INFORMACIÓN PLANO I.5 RÉGIMEN URBÁNISTICO VIGENTE. ZONIFICACIÓN GLOBAL ESCALA 1:2.000
EQUIPO REDACTOR SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto. INIGO PEÑALBA Arquitecto. MIKEL IRIONDO Abogado.	IDAZLE TALDEA SUSTATZAILA PROMOTOR SERVANDO



"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

- | | |
|--|--|
| INDUSTRIALA b.10 | b.10 INDUSTRIAL |
| ERREPIDEAK ETA HIRI-BIDEAK (S.O) e.10.1 | e.10.1 CARRETERAS Y VIAS URBANAS (S.G) |
| ERREPIDEAK ETA HIRI-BIDEAK e.10.2 | e.10.2 CARRETERAS Y VIAS URBANAS |
| IBILBIDE BEREZTEN SAREA (BIDEGORRI) e.20 | e.20 RED DE ITINERARIOS ESPECIALES (BIDEGORRI) |
| TRENBIDE SAREA e.30 | e.30 RED FERROVIARIA |
| HIRI ESPAZIO LIBREAK f.10 | f.10 ESPACIOS LIBRES URBANOS |
| HIRIKO ESPAZIO LIBRE KOMUNAK f.20 | f.20 ESPACIOS LIBRES COMUNES |
| IBAI-IBILGUAK h.10 | h.10 CAUCES FLUVIALES |

PUNTO	Coordenada X	Coordenada Y
1	560912.46	4784480.86
2	561438.72	4784060.63
3	561141.94	4783878.07
4	560860.76	4783928.46
5	560511.85	4784200.69
6	560555.51	4784252.03
7	560599.71	4784316.99
8	560967.78	4784216.70
9	560802.07	4784361.04
10	560500.00	4784400.00
11	561500.00	4784400.00
12	561500.00	4783800.00
13	560500.00	4783800.00

"31. TRUKUTXO" EREMUAREN
PLAN PARTZIALA
PLAN PARCIAL
DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"

AZPEITIA
2025ko OTSAILA
FEBRERO 2025

II. PROIEKTUAREN PLANOAK
II. PLANOS DE PROYECTO
II.1 PLANOA
ZONAKATZE XEHATUA
PLAN II.1
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA


1:2.000 ESKALA
ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR


IDAZLE TALDEA

SUSTATZAILEA

PROMOTOR


SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto.
IVIGO PEÑALBA Arquitecto.
MIKEL IRIONDO Abogado.





"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

UROLA IBAIAREKIKO ERAIKINAREN ATZERAPENA ☐ RETIRO DE LA EDIFICACIÓN EN RELACIÓN CON EL RÍO UROLA
ERAIKUNTZAREN GEHIENEN OKUPAZIOA ☐ OCUPACIÓN MÁXIMA DE LA EDIFICACIÓN

EAE-KO TRENBIDE SAREAREN LPS

JABARI PUBLIKOKO GUNEA

ZORTASUN-EREMUA

ERAGINDAKO GUNEA

LUR-BERDINKETAREN ERTZA

PTS RED FERROVIARIA CAPV

ZONA DE DOMINIO PÚBLICO

ZONA DE SERVIDUMBRE

ZONA DE AFECCIÓN

ARISTA DE LA EXPLANACIÓN

TRAZADO EN SUPERFICIE
SUELO URBANIZABLE Y NO URBANIZABLE
Figura Nº 2

DETALLACIÓN Y LIMITACIONES

LEY DE ORDENACIÓN DE LOS TRANSPORTES TERRESTRES

TRAZADO EN TÚNEL
SUELO URBANIZABLE Y NO URBANIZABLE (*)
Figura Nº 3

DETALLACIÓN Y LIMITACIONES

LEY DE ORDENACIÓN DE LOS TRANSPORTES TERRESTRES

TRAZADO EN VÍADUCTO
SUELO URBANIZABLE Y NO URBANIZABLE
Figura Nº 4

DETALLACIÓN Y LIMITACIONES

LEY DE ORDENACIÓN DE LOS TRANSPORTES TERRESTRES

"31. TRUKUTXO" EREMUA
PLAN PARTZIALA

2025ko OTSAILA

PLAN PARCIAL
DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"

2025ko OTSAILA

II. PROIEKTUAREN PLANOAK

II.2 PLANOAK

ANTOLAMENDUAREN
DEFINIZIO GEOMETRIKOA.
OINPLANO ETA SEKZIOAK
1:2.000 ESKALA

II. PLANOS DE PROYECTO

PLANO II.2

DEFINICIÓN GEOMÉTRICA
DE LA ORDENACIÓN.
PLANTA Y SECCIONES
ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR

SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto.

INIGO PEÑALBA Arquitecto.


MIKEL IRIONDO Abogado.

IAZLE TALDEA

SUSTATZAILA

PROMOTOR

HEMOS
SERVANDO






"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

- | | |
|---|--|
| URA HORNIDURAKO SAREA
EGUNGO SAREA. Ø 700 Fd
HARGUNEA | RED DE ABASTECIMIENTO DE AGUA
CONDUCCIÓN EXISTENTE. Ø 700 Fd
ACOMETIDA |
| SANEAMENDU SAREA
KOLEKTORE NAGUSIA
UR ZIKINEN KOLEKTOREA
EURI-UREN KOLEKTOREA
NABEETAKO ESTALKIETAKO EURI-UREN KOLEKTOREA
IBAIRA ISURTZEA | RED DE SANEAMIENTO
COLECTOR PRINCIPAL
COLECTOR FECALES
COLECTOR PLUVIALES
COLECTOR PLUVIALES DE CUBIERTAS DE NAVES
VERTIDO A RÍO |
| ENERGIA ELEKTRIKO BANATZEKO SAREA
30 kV-ko LINEAK | RED DE DISTRIBUCIÓN DE ENERGÍA ELÉCTRICA
LINEAS DE 30 kV. |
| TELEKOMUNIKAZIO SAREA
TELEFÓNICAren SAREA
HARGUNEA | RED DE TELECOMUNICACIONES
RED DE TELEFÓNICA
ACOMETIDA |
| GASA BANATZEKO SAREA
PRESIO HANDIKO GAS SAREA 16atm. ALTZAIRU Ø 200
HARGUNEA | RED DE DISTRIBUCIÓN DE GAS
CONDUCCIÓN GAS ALTA PRESIÓN 16atm. ACERO Ø 200
ACOMETIDA |
| ARGITERIA PUBLIKOAREN SAREA
ARGITERIA-SAREA
KALE-ARGIA | RED DE ALUMBRADO PÚBLICO
RED DE ALUMBRADO
FAROLA |

"31. TRUKUTXO" EREMUAREN PLAN PARTZIALA	PLAN PARCIAL DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"
AZPEITIA	AZPEITIA
2025ko OTSAILA	FEBRERO 2025

II. PROIEKTUAREN PLANOAK	II. PLANOS DE PROYECTO
II.3 PLANOAK	PLANO II.3
HIRI ZERBITZUEN AZPIEGITURAK	INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS URBANOS
1:2.000 ESKALA	ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR	IDAZLE TALDEA	SUSTATZAILA	PROMOTOR
 SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto. INIGO PEÑALBA Arquitecto. MIKEL IRIONDO Abogado.	 INIGO PEÑALBA Arquitecto.	 MIKEL IRIONDO Abogado.	




"31. TRUKUTXO" HE. ☐ AU. "31. TRUKUTXO"

JARDUKETA INTEGRATUKO EREMUAK (J.I.) ☐ AMBITO DE ACTUACION INTEGRADA (A.I.)
PLANGINTZAREKIN BAT EZ DATOZEN ERAIKINAK ☐ EDIFICIOS DISCONFORMES CON EL PLANEAMIENTO

"31. TRUKUTXO" EREMUAREN PLAN PARTZIALA	PLAN PARCIAL DEL ÁMBITO "31. TRUKUTXO"
AZPEITIA	AZPEITIA
2025ko OTSAILA	FEBRERO 2025

II. PROIEKTUAREN PLANOAK	II. PLANOS DE PROYECTO
II.4 PLANOAK	PLANO II.4
HIRIGINTZA EGIKARITZEA	EJECUCIÓN URBANÍSTICA
1:2.000 ESKALA	ESCALA 1:2.000

EQUIPO REDACTOR	IDAZLE TALDEA	SUSTATZAILA	PROMOTOR
 SANTIAGO PEÑALBA Arquitecto. INIGO PEÑALBA Arquitecto. MIKEL IRIONDO Abogado.		